



- **Atez ateko zabor bilketa** Hernaniko alkatea eta oposizioako zinegotzia aurrez aurre
- **Xan Errotabehere, ipuin kontalaria:** «Entzuleek euskaraz hitz egingo ez badute ere beti ulertuko dute zerbait»
- **Net Hurbil** Zainzuriaren mozkorraldiak egarriz itoko ditu peruarrak
- **Okatxu hegal egiten** Artzainen bizimodua komikira ekarria
- **San Adriango aurkikuntzak** Brontze Arotik igarobide estrategikoa izan da



JON SARASUA

«Hanka bat lokatzetan
sartuta ez daukana ez
da interesgarria»

Ertzeko Zatiak
gogoeta liburua
kaleratzear da
ARGIArekin



Adinekoen zaintza



Ainhoa Arrillaga, Maria Silvestre eta Maria Rosario Arrizabalaga.

- Gero eta zaharrago hilko gara. Zaintza beharrak asko ugalduko dira.
- Mendekotasun egoeran dauden adinekoak etxean zaintzen segitzen dugu. Zerbitzu publikoak herren dabilta.
- Zaintzaileak emakumeak dira ia erabat, bai etxean eta baita zaintza formalean ere.
- Mendekotasun Legearen tranpak eta albo ondorioak.

Mahaikideak

Ainhoa Arrillaga, Maria Rosario Arrizabalaga, Maria Silvestre.

Elkarrizketa

Jose Luis Elosua, Gipuzkoako Nagusilan-eko lehendakaria.



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagañia Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera ➤



gizarte
kutxa
zugandik zuguana



• **NON ZER** •

2010eko urriaren 24a, 2.249 zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Patxi Alonso:** «Apolitikoak eskuindarrak diren bezala, talderik ez dutela diotenak Real Madrilekoak dira». SUSTRAI COLINA / 4

Asteko gaia

- **San Adriango igarobidea.** 4.000 urteko historia tuneletik argitara. NAGORE IRAZUSTABARRENA / 5

Pertsonaia

- **Jon Sarasua:** «Hanka bat lokatzetan sartuta ez daukana ez da interesgarria». SUSTRAI COLINA / 10

Gaiak

- **Daniel Dayan, kolono judutarra:** «Ez gara bakerako oztopo, segurtasunaren bermea baizik». ALBERTO PRADILLA / 15

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** Egia da, aitor dut. JOSÉ LUIS PADRÓN / 20
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 21
- Zuzentasunaren izenean, zuzengabekeria. XIPRI ARBELBIDE / 22
- **Txandan** Argazkia(k). EDU ZELAIETA / 22
- Langile ikastola? JOXE MARI AUZMENDI / 23
- **Hiruko txikian** Adar jotzea. JOXEMARI OSTOLAZA / 23
- **Bertso berriak** Txakurak hankutsik. UNAI AGIRRE / 24

Erdiko kaiera

- **Okatxu, hegal egiten.** Ardi jendea, umorez hordi. GORKA BEREZIARTUA / 25
- *Parmako kartusia*, nobela masoniko handia. LLUÍS BONADA/EL TEMPS / 28
- **Liburuak** SAIOA RUIZ GONZALEZ / 30
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 31
- **Ezpalak/Abarrak** JON TORNER / 32
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Hondakinak Hernanin.** Atez ateko bilketa: alternatiba *versus* galbidea. URKO APAOLAZA / 39
- **Xan Errotabehere, ipuin kontalaria:** «Istoria gure sentitzeko, mintzairak ere gurea behar du izan». GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Zainzuriak nola agortu dituen Peruko iturriak. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Germinal** 33. ITXARO BORDA / 50



“Apolitikoak eskuindarrak diren bezala, talderik ez dutela diotenak Real Madrilekoak dira”

Patxi Alonso | Benetako konkistatzailea

Kamera aurre zein atzean, “makina” bat.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Judit Fernandez

Mundua futbola, futbola eta futbola omen da.

Bedeinkatzen dutenerako urak zerbait izango du, ezta? Gol bakoitza orgasmo bat da eta zenbat egongo diren ez dakizunez...

Sexua baino ziurragoa dela futbola, alegia.

San Mamesetik erromesaldian irteten den jendetzari Athletic kenduz gero zer gertatuko litzateke? Eta urtebetean futbolik ez balego?

Zuek Cristiano Ronaldoren azazkalei buruz hizketan jarraitzeko gai izango zinatekete!

Lehen telebistak formatu, informatu, eta entretenitu behar zuela esaten zen. Gaur entretenimenduak irabazten du, baita albistegietan ere. Baina nork egin du negozioa norekin? Telebistak futbolarekin ala futbolak telebistarekin?

Auskalo, baina aditu orojakile ahoberoentzat ez dago krisirik.

Telebistan egin dezakezun okerrera ez da telezaborra, gaizki egindako telezaborra baizik. Ez pentsa jendeak eztabaida gaiztotu eta zaratatsuak nahi dituenik, baina futbolari bokadiloa, katxondeoa, eta *Marcaren* txorakeriak kentzen badizkiozu zer geratzen da?

Athleticzalea izateagatik Interneten larrutzen duten aurkezle bilbotar bat!

Bilbon sortu izana barkatzen ez didatenak pozik uzteko zer egin behar dut? Suizidatu? Apolitiko guztiak eskuindarrak diren bezala, talderik ez dutela diotenak Real Madrilekoak dira.

Kontuz, zurea Real Madrilen katea da eta...

Auskalo zergatik daukan La Sextak aurkezle zuri-gorri bat haren burua mozteko prest dauden beste mila ilaran edukita. Haien Athletic, liga ona egiten duenean, beti bederatzigarren geratzen den Asterix eta Obelixen taldea da.

Ez da izango reality-en maixutzat zauzkatelako?

Generoak etiketak dira eta egon daitezke oso reality onak eta oso txarrak, albistegi on eta txarrak egon daitezkeen bezala.

Aizu, ez gaitu inork irakurtzen, eta ez hasi reality-ak defendatzen, e.

Zergatik ez? Beti egin didate grazia ekonomia aldizkari bat irakurri eta gorbata bat janzteagatik xanpaina txiz egiten dutela uste dutenek.

Baina jendea nahierara erabiltzen duenari manipulatzailerak esaten zaio.

Akzio-erreakzio sekuentzia batzuk nahiko matematikoak dira, baina pertsonekin ari zaren momentutik beti dago ezusterako tartea. Kokotxak pil-pilean prestatzea bezalakoa da, puntu egokia bilatu behar duzu.

Hori baldin bada telebistaren etorkizuna...

Telebista orainaldian bizi da eta ez naiz ni azti eta profeta izango. Hori bai, lehengo programa handi baten aurrekontuarekin kate oso bat egin beharko da laster! ■

• ASTERO GAIA •

San Adriango igarobidea

4.000 urteko historia tuneletik argitara

Gipuzkoa eta Araba lotzen dituen San Adriango tunela iraganean pasabide garrantzitsua izan zeneko zantzuak egon arren, orain arte ez zen ikerketa sakonik egin. Denboraren tunela bailitzan, duela 4.000 urteko bizitoki, Erdi Aroko gotorleku edo duela 500 urteko errepedeetako atsedeen gune izan zena bisitatu dugu, teknologia berriena erabilia.

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Argazkiak: Aranzadi Zientzia Elkartea

DONOSTIATIK ABIATUTA 50 bat kilometrora dago Zegama. Handik Otzaurteko mendate bihurrian gora beste ia 8 kilometro egin eta, Benta pareko pista hartuta, beste bospasei kilometro egin daitezke autoz. Autoa utzi eta basoko bidean gora oinez abiatuz gero, arin

samar ibilita, ordu erdian parean izango duzu San Adriango edo Lizarrateko igarobidea, itsas mailatik 1.000 metroko altueran dagoen haitzulo karstiko naturala, 70 metro inguru luze dena, eta artifizialki zabaldua, egokitua. Nork esango luke mendian galdutako inguru





Tunelaren argazki zaharrak. Ezkerrean, 1893. urte inguruko argazkia, ermita ezker aldean baitago eta garai hartan aldatu baitzuten eskuinaldera; erdian, XIX. mende amaierako irudia, mikelateen etxea oraindik zutik dela; eta eskuinean, 1946 urte inguruko argazkia, eraikinen azken hormak erortzeaz zeudela.

hura mendetan garrantzi handiko igarobidea izan zela? Bada, horixe esaten du azken hiru urteetan Aranzadi Zientzia Elkartearen burutzen ari den ikerlan multidiziplinarioak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa eta Garapen nahiz Kultura eta Euskara sailak bultzatzen duten proiektuaren barruan.

San Adrianek izandako garrantziaren zantzuak baziren lehenago ere. Mende askotan Gaztela eta Frantziaren arteko bidean gune erabakigarritzat jo izan da. Ikerketaren nondik norakoen berri eman digun Aranzadiko kide Alfredo Morazaren hitzetan, “beti izan da toki mitikoa, oso berezia, gauza asko esan dira hari buruz, baina sekula ez zen ikerketa sakonik egin. Ez genekien benetan zer zegoen eta zer egoeratan zegoen. Horregatik Foru Aldundiak erradiografia bat egin nahi zuen”. Hala, hainbat alorretako 30 zientzialari tuneleko aztarna geologiko, historiko, etnografiko eta arkeologikoak ikertzen hasi ziren.

Aranzadiko arkeologoak dio orain arte burututako indusketen emaitzak oso positiboak direla: “Ezusteko ona hartu dugu ia egitura guztiak osorik daudelako. Brontze Arotik hona 4.000 urteko sekuentzia ia osorik gorde da”.

4.000 urte, lau argazki

4.000 urteko bide horretan lehen geldialdia Brontze Aroa da. Duela lau milurteko arras-toak aurkitu dituzte eta garai hartan haitzuloan zenbait etxola eta artegi zeudela ondorioztatu dute. “Horrek adierazten du beti erabili izan dela bizitoki gisa”, dio Morazak. Arras-took hiru metroko sakoneran topatu dituzte. Denboraren poderioz, lurra jalkitzen joan da eta horrek esan nahi du historiaurrean tunela-

ren zorua askoz beherago zegoela, haitzuloa askoz handiagoa zela.

Tunelaren urrezko aroa Erdia Aroan iritsi zen. “Askoz logikoagoa dirudi Etxegarateko edo Otzaurteko portuak erabiltzea, 500 metro beherago baitaude eta hori neguan alde handia da. Baina horrek Nafarroako Erresuma zapaltzea esan nahi zuen, zergak ordaintzea eta etengabeko gatazkak, alegia. Horregatik, XIII. mende hasieran, Gaztelako Erresumak Lizarrateko bide alternatiboa bultzatu zuela uste dugu”. Galtzada eraiki zuten eta gunea gotortu zuten. Gaztelu batek babesten zuen Gaztelaren eta Frantziaren arteko lotura nagusietakoa eta haitzuloaren barnealdea eraikinez josita zegoen: sutegiak, zalditegiak, hilerria...

XVI. mendean gaztelua eta, hortaz, igarobidearen funtzio militarra desagertu ziren.

Aranzadiko kideek hiru indusketa kanpaina burutu dituzte orain arte. Baina aztarnategi zabalaren zati txiki bat baino ez dute aztertu. Pasabidearen erradiografia egiteko informazioa bildu dute, baina aurrerantzean lan asko dute egiteko.



“San Adriango mendi hau munduko gorenetakoa da”

Mendetan pasabide garrantzitsua izaki, garai eta toki askotako bidaiariak idatzi dute San Adriango tunelari buruz. Eta Xabier Azurmendik horiek bildu zituen *San Adrian eta inguruen kondaira* (1997) liburuan. Hona hemen testigantza horien zenbait aipu.

Arnald von Harff 1499an pasa zen bertatik: “Galarretatik San Adriana legoa bateko bidea, guztia aldapan gora. Mendiaren gainean ermita bat dago eta haitzean zulatu duten zulo bat. Pasabidearen zaintzaileak bertan bizi dira. Hemen bukatzen da Espainia eta bere hizkuntza, eta euskaldunen lurra eta hizkuntza hasten dira bertan; andreek eta gizonek ere janzkerak aldatzen dituzte, legoa-neurria ere ezberdina da”.

1502an Felipe eta Joana Gaztelako printzeek igaro zuten tunela, eta haiekin batera Antoine de Lalaing, Montignyko jaunak ere bai. Azken horren egunkariak hala dio: “Jende askoren beharrik ez legoke pasabide hau gordetzeko; lekua oso berezia, babes eta giltza da gaskoien aurka”.

Andrea Navagiero veneziarrak 1528an idatzi zuenez, “mendiaren gailurreraino ez dago zertan igorik, alderik alde tunel batetik dauka pasabidea, zulo honek balezta tiro baten luzeera edukiko du”.

Federiko II.a eta emaztea hainbatetan igaro ziren handik eta 1538an, Hubertus Thomas Leodiusek jaso zuenez, zailtasun handiak izan zituzten tunelera iristeko. “Printzea eta emaztea neke handiz elurretatik atera eta haitzulora eraman zituztenean, ardo pixka bat beste jan-edatekorik ez zuten aurkitu (...). Ondo nekien nik tuneleko jendeak zer janik ez zeukala, diru mordo ederra eman nien sei nekazari arabarrei, pitxar batzuk ardo eta hogeitaz ogi tunelekoei eraman diezazkieten”.

Georgius Braun eta Franciscus Hogenbergiusek Napolitik gertu dagoen Pausalipo haitzuloarekin alderatu zuten Lizarrate. Eta ez zuten Federiko II.ari egokitu zitzaion jaki eskasariak topatu: “Tunelean aterpe eskergarria dago eta poltsa ona dakarren pelegriñoarentzat janari ugari ere bai”. 1567an izan zen hori.

Bost urte geroago Giovanni Bautista Venturinok tunelaren alderdi zerutiarragoa izan zuen hizpide: “San Adrianen ermita bat dago, santu honen izena darama mendiak. Frantziatik Espainiara zetorrela, santuak mirariz zulatu omen zuen lehen hurbilgaitz eta sarrezina zen harkaitza”.



Georgio Houfnagliok 1567an egindako grabatu hau Gipuzkoako lehen irudia da, San Adriango pasabideak zuen garrantziaren seinale.

1655ean argitaratutako lanean Antoine de Brunelek beste azalpen bat eman zuen (inolako beharrik gabe, haitzulo naturala baita): “Badirudi izadiak han ipini zuela Bizkaia eta Gaztela Zaharraren arteko bereizketa sendo eta gaindiezina. Nahitaezkoa izan da tunel bat minaz, mailuz eta zizelez zabaltzea”.

Jean Muretek 1666an idatzitako gutun batean hala deskribatzen zuen tunela: “Gailurrean, haitzulo batean sartu ginen; zure etxetik Zelestinoen komenturainoko luzerakoa gutxi gorabehera. Leku ilun batean zehar irtezen da zulo honetatik. Egia diotsut, jauna, inoiz ez dut hain gauza beldurgarrikerik ikusi”. Albert Jouvinen arabera (1672), ordea, izua haitzulotik kanpo zegoen: “Aro guztietan jendeak bide honi beldur dio, mendietan banaturik dabilzan lapurrek, bidaztiak ikustean, horiei ekiten baitiete”. Hamarkada horren amaieran, Maria Katherine le Jumel de Baneville, Aulnoyko kondesak beste erabilera bat proposatu zuen inguru horrentzat: “Harkaitz eta amildegiak bakarrik daude bertan, maitale itxaropen gabe batek bizia galtzeko leku aproposak, hartarako beharrik izanez gero”.

Ia lekuko guztiek bidearen gogorra izan zuten hizpide eta bateren batek puztu ere egin zuen San Adrian; Guillaume Manierren esanetan (1726), “San Adriango mendi hau munduko gorenetakoa da”.

Nafarroako Erresuma konkistatuta, ez zuen jada zentzurik. Gotorlekuaren arrastoak beste eraikin batzuk, ostatuak-eta, egiteko harrobi gisa erabili zituzten. “Jendeak uler dezan, gaur egungo errepideetako atseden gune moduko bat zen”, Aranzadiko kidearen hitzetan. “Gaur gasolina topa dezakezun moduan, garai hartan lastoa zegoen, lo egiteko tokia, otorduak egiteko aukera, segurtasun gunea ere bazen... Zegama eta Zalduondo

artean ez zegoen ezer ere, lapurrak, mendia eta animaliak besterik ez, eta hura Gaztela eta Frantziaren arteko errege bidea zen”.

San Adriango tunelaren laugarren eta azken okupazio aldia XIX. mendekoa izan zen. XVIII. mendean beste bide batek indarra hartu zuen, Leintz-Gatzagako mendatea igarotzen duen bideak, hain zuzen. Askoz luzeagoa izanagatik, errazagoa zen bide hura, baita mantentzen merkeagoa ere. Lizarrateko



Aranzadi Zientzia Elkartek eta Inertek enpresak egindako berregite historikoaren irudiak. Ezkerretik eskuinera: igarobidea Brontze Aroan; Erdi Aroko eraikinak haitzuloaren barnealdean; garai bereko gotorlekua kanpotik ikusita; tunelaren azken okupazio aldia, XIX. mendeko mikeleteen etxea eta ostatua.

neguko izotz eta elurteek asko garestitzen zituzten bidearen konponketak. Hala, San Adrian baztertuta geratu zen, baina ez zuten erabat utzi. Mikeleteen etxeak hantxe eutsi zion, eremua zaintzeko eta bidesaria kobratzeko, harik eta 1911n suak hartu zuen arte.

Iragana etorkizuneko teknologien bidez

Proiektuaren helburua tunelaren erradiografia osoa egitea zen. Alfredo Morazak dioenez, “horrek esan nahi du une honetan haitzuloa amilduz gero, zehatz eta osorik

berreraikitzeko gai izan beharko genuela”. Hortaz, haitzuloaren azalera osoa fotogrametria bidez, milimetroz milimetro, neurtu dute Inertek bizkaitar enpresako kideek. Ikerlariek hiru dimentsioko eredu zehatza dute haren gainean lan egiteko.

Eredu horretan oinarrituta eta aurrez azal dutako lau aldi nagusiak kontuan hartuta, hiru dimentsioko haitzulo birtualari garaian garaiko elementuak erantsi dizkiote eta bideoa osatu dute. Ikuslea lau aldiz sartzen da San Adriango tunelean eta garai bakoitzean haitzuloak zuen itxura ikusten du. Berregite historikoa edonork ikus dezake Interneten.

Ikerlariarentzat balio handia du tresna horrek, “haitzuloaren funtzionamendua eta historikoki izan duen eboluzioa hobeto ulertzen laguntzen digulako eta aurrerantzean egin beharreko lanak bideratzen ere lagunduko digulako”. Baina bereziki San Adriango igarobidearen ikerketan parte hartzen ari diren zientzia alorretan adituak ez direnei, ikerketaren datuak ulertzeko gai ez direnei zuzendua dago bideoa. Proiektuaren helburua, ikerketa bera burutzeaz gain, emaitzak gizarteratzea baita.

Tunela gizarteari zabaltzeko

Arkeologoa, zimendu bat aurkitzen duenean, haren gainean zegoen egitura guztia irudikatzen da. Baina Lizarraten sartzen den oinezkoak haitzuloko horma biluziak baino ez ditu ikusiko. Bideoak denboran bidaiatzeko aukera ematen dio, nolabait, adituak ulertzen duena begiez ikusteko. Baina ez da hori San Adriango ikerketa herritarrei hurbiltzeko bide bakarra.



Indusketa kanpainetan, asteburuetan, bisita gidatuak egiteko aukera izan da, ikerketa gizarteratzeko asmoz.



Horrez gain, indusketa kanpainak burutu bitartean, herritarrek horietan parte hartzeko aukera izan dute, bideak garbitzen nahiz indusketan bertan lanean. Eta lanean aritu nahi izan ez dutenek ere, bisita gidatuak egiteko aukera izan dute. “Ez genuen soilik ikerketa egin nahi”, dio Morazak, “San Adrianek jendearen jakin-mina pizten du, han zer zegoen ulertu nahi du eta jakin-min hori asetzeko, ekimena gizarteratzeko ahalegina ere egin nahi izan dugu”. Pozik daude ahalegin horrek izan duen erantzunarekin, asteburutan hurbildu den jendetzarekin.

Proiektuaren beste helburuetako bat galtzada egokitzea eta herritarrek berrerabiltzea da. “Bere garaian ingeniari-tza lan bikaina egin zuten, baina azken 100 urteetan ez da inolako konponketa lanik egin”. Zati batzuk egokitu-ta daude dagoeneko. Ingurua ezagutzen ez dutenentzat erreferentzia izateaz gain, mendizale gehienek bide bera ibiliz gero, higaduraren ondorioak asko murrizten dira.

Izozmendiaren tontorra

Tresna ugari (dokumentazio historikoa,

arkeologia, prozesu geologikoen azterketa eta abar) erabili dituzte ahalik eta informazio gehien bildu eta San Adriango tunelaren puzzle konplexua pixkanaka osatzeko. Baina indusketei dagokienez, oraindik asko dago egiteko. Nolabait ere, zundaketa eta garbiketa lana egin dute, “baina aztarnategi ikaragarria da eta zati oso txiki bat baino ez dugu induskatu; datu bat botatzearren, aztarnategiaren %5 baino askoz gutxiago dago induskatuta”, dio Morazak. “Ikerketa ezin dugu tunelaren barnealdera mugatu. Inguruko eremuak ere aztertu behar dira. Badakigu, esaterako, Gaztelua haitzulotik kanpo hedatzen zela edo inguruko haitzuloak makien babesleku izan zirela”.

Denbora tarte oso luzean erabilera anitza izan du. Eta, hala, iragan oparoa ezagutarazita, etorkizuna ere badu mendi puntan egon arren orain hurbilago dugun San Adriango igarobideak. ■

argia.com San Adriango igarobidearen berri-
teko historikoaren bideoa aurkituko duzu gure web-
gunean.



ALKARTASUNA
Usurbilgo Baserriaren Kooperatiba
Ugarte Industrialdea 12 Usurbil 20170 Gipuzkoa

Elikagai ekologikoak •
Usurbilgo baserrietako produktuak •
Sagardogintzarako tresneria •
Tratamendu naturalak •
Onttoen haziak... •
Banaketa zerbitzua •

DENDAREN ORDUTEGIA
Astelohenetik-Ostiralera: 9tatik-13tarajeta 16tatik-19.30tara
Larunbatetan: 9tatik-13tara

Tel/Fax.: 943 36 11 14
www.alkartasunausurbil.com • alkartasuna@usurbil.com

Jon Sarasua

«Hanka bat lokatzetan sartuta ez daukana ez da interesgarria»

Gunearen ertza baino ederragoa delako ertzaren gunea.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

Zelan itzaletan?

Orain hamar bat urte pasa nintzen bertsotatik itzalera, baina ez zen bertsoa uztea izan zehazki, aurpegi publikoena alboratzea baizik, artikuluak eta abar. Isiltzeko arora pasatzeko gogo nuen. Bertsolari bat, euskal mundutxoan izena daukan norbait, beti dago eskaparatean, eta niri eder gertatu zait erakusleihatik alboratzea, elikatzeko aro bezala bizi izan dut. Horren ifrentzua ekintzan murgiltzea izan da, pentsamendua ekintzaren diziplinara uztartzen saiatu naiz, eta ekintzen zurrunbiloan bizi izan naiz azken hamar urteotan, nire burua nekatu samar sumatzeraino. Hamar urte asko dira eta ziklo baten amaieran sentitzen naiz.

Itzaletatik hobeki ikusten dira besteen agertu nahiak?

Behin horretaz satira bat egin nuen, baina orain ez nintzateke horrekiko oldarkorregia izango. Pertsonen ohiko bulkada da, ume orok izaten du exhibizio beharra, eta premia hori bizirik dago kulturgile eta oro har izena duen jende askorengan. Eta ez da txarra. Gertatzen dena da euskal munduan kalitatearen galbahea pasatzea errazagotzat dutela askok, eta batzuek asko agertzen dutela beren burua. Nartzisoak abonatzen diren garaietan gaude gainera. Kontentzio ariketa-xoa egitea ona litzateke horretan, gosarian kruasanekin egiten den bezala. Hiru jango eta bat jan.

Ertzeko Zatiak

Azken urteetan Hego Ameriketara egindako bidaietan bildutako pentsamendu eta anekdotekin liburua osatu du Sarasuak: *Ertzeko Zatiak*.

ARGIAK argitaratuko du liburua, eta urriaren 26an izango da aurkezpen prentsaurrekoa, Donostiako Konstituzio Enparantzako Liburutegi Nagusiko ekitaldi aretoan.

Pentsamenduaren eta ekintzaren ertzeko zatiekin zatoz argira. Garrantzitsua da gure herria munduan eta mundua gure herrian kokatzea?

Gure nazioartekotasunaren dimentsioa lantzea polita da. Euskalgintzak landu dezake nazioartekotasun propioa. Edo Bertsozale Elkartek berea, edo beste edozein elkarte eta mugimenduk. Eta zabalago, euskararen komunitateak. Gauza askorako bidea ematen du, eta gainera laguntzen du gauzak angelu berrietatik ikusten. Bestetik, liburuan bildutako zatietan badago hondoko ideia bat: herri batek ez du galdetu behar bakarrik zenbat diru daukan “Hirugarren Munduari” emateko, baizik eta lehenik zer esperientzia dituen hango eragileekin konpartitzeko. Herri honetik begirada apologikotik begirada automespretxatzailera doan penduluan ibiltzen gara usu, eta kosta egiten zaigu gure buruari, bere ahulgune eta balore txikiekin, sano samar begiratzen. Gure buruaz barre asko egin dezakegu, baina esaterako, azken 50 urteotan,

Nortasun agiria

Aretxabaletan sortu zen 1966ko apirilaren 13an. Kazetaritza eta Soziologia ikasketetan ibilia, *Bi begiratu euskarazko kazetari hizkerari* lanarekin doktoratu zen 1996an. Plazaz plazako bertsolari ezagutu genuena, irakasle da egun.





euskalgintzak euskararen berreskuratze pre-kario eta partzial honetan egindakoa mundu-ikuspegi batetik aztertuta itzela da. Arlo horretan asko daukagu konpartitzeko, paradiplomazia lan baterako aukerak badira, eta batez ere aukera dago esperientzia txikien elkarbanatze erreala egiteko. Horrez gain, beste dimentsio batean, herri honek daukan energia autoeratzaila hor dago. Iruditzen zait mende honetako humanizazio bideen gakoetako bat autoeraketa gaitasuna izango dela. Horretan ere, herri honek pista batzuk ditu, eta horiei adi egotea merezi du.

Euskalgintza egoki artikulatuta dago?

Bai eta ez. Irudipena dut euskalgintza ez dela oraindik espiralean antolatu, ez duela bere ikuspegia muintetik landu, besteak beste euskalgintzako erakundeak gestioak itota dabil-tzalako. Ez dute pentsamendu organiko bat sortzeko aukerarik zurrunbilo horretan. Eta arreta gehien jartzen zaien euskal iritzimailen pentsamendua, organikoa ez izateaz gain, ez da oso eragilea gehienetan. Deskone-xio moduko bat gertatzen da: eraikitzen dabi-len jendea etorkizun-ikuspegiak eta estrate-

giak formulatzeko denborarik gabe itota bai-tabil, eta pentsalari beharko luketenek estra-tegiara jaisteko joera urria erakutsi dute. Eta galdera berriak daude, galdera praktikoak, norabideei buruzkoak. Bestetik hor dago Kontseilua, erakundetze nahiko zabal eta interesgarria daukagu, baina agian, gestioa eta pentsatzeko gaitasunak norabide berean jar-tzea eskas zaigu.

Ertzeko zati zenbaitetan euskalgintzak eta koo-peratiben mugimenduak elkarrengandik zer-ikasia badutela iruditu zait.

Euskalgintza modernoaren aroa, Arrasateko kooperatibak, eta ETA bateratsu hasten dira. Egia da kooperatibek helduleku garrantzi-tsuak eskaintzen dituztela, ideia praktiko batzuk, baina bi arima dituzte, eta historikoki arima eskasena nagusitzen zaie ia beti. Para-doxikoa da Arrasateko esperientzia. Efizien-tziaz gauzak aurrera ateratzen, trinkotzen, kudeatzen, eta maila batean autoeratzten asmatu du, eta horretan beharbada euskalgin-tzarentzat inspiratzailea izan daiteke. Uneo-tan, ordea, Arrasateko kooperatibismoak dituen gabeziak handiak dira, eta zer ikasia

badu mugimendu sozialetatik. Euskalgintzan oraindik badago bulkada, ametsen motorra martxan dago, kooperatibetan aldiz, motor hori herdoilduta dago.

Motorrak herdoiltzen segiz gero Mondragon Taldeak multinazional arrunt bilakatzeko arriskua du?

Enpresa logika mugagabea gailentzeko arriskua erreal da, eta ez gerora soilik, gaur ere bai. Arrasateko kooperatiba bat demokrazia bat da, enpresa demokrazia eredu bat. Hori interesgarria da, eta mundu osoan datoz hau ikastera, baina metabolismo demokratikoak ez du asko ziurtatzen, bultza deza-ke garapen eredu arriskutsu bat. Zenbateraino ari da egungo humanizazio bideei aurrera edo atzera tiratzen? Kooperatibismoa kontraesan horietan igeri bizi da, eta bistakoa da zein izango den bere inertzia epe laburrera. Guk azken urteotan bota diogun begiraturik gehiago interesatu zaigu azpian dagoena, autoeraketa, kooperatibismoa baino. Autoeraketa da pertsonen erabakimenean oinarritzea, industria bat, eskola bat, ala gaztetxe bat izan. Protagonistak izatea jabe, erabakitzaile. Autoeraketa arte bat da, liberalismoari keinuka, gertuago dago anarkismotik leninismotik baino. Etorkizuna pentsatzeko bide bat da. Seguru asko horretaz asko hitz egingo da mende honetan. Baina autoeraketan dabilenak beti edukiko du hanka bat kakatan sartuta, errealitate gordinetan baitabil lehian. Nire ustez, hanka bat lokatzetan sartuta ez daukana ez da interesgarria.

Zure hitzetan, egungo estrategia eta politikak humanizatzeko beharra salatzen dizun ertzeko zatia sumatzen dut behin eta berri.

Ezker eta aurrerakoi hitzak disfuntzionalak iruditzen zaizkit, eta azkenaldian humanizazio hitza erabiltzen ari naiz, nahiz eta hitz hau ere ez izan egokiena. Euskal Herrian ezkerreko ikuspegi batetik esaten den gehientsuena agortuta dagoela sentitzen dut, bere oinarriak fosilduta daudela. Ezkerra berdintasuna eta askatasuna bezalako modernitatearen totem gutxi batzuen inguruan dabil bueltaka, eta ia eskuina bezain urrun ikusten dut humanizazio alternatiba errealetatik. Prozesu geldo bat gertatu zait azken hamar urteotan. Progresismotik desinstalatzeko joan naiz, nire belaunaldiko ezker kulturako euskal herritar batek instalatu dituen programa ideologikoetatik desinstalatzeko, nahiko gradu deserosoetarin. Ez du esan nahi iraganeko ez dakit nora itzultzea, ez dakit zer ideologia berri besarkatzea, baina ez naiz lehen bezain guneko senti-

tzen, eta hitz berriak eskatzen dizkit. Brasilen muturreko iraultzaileekin ari gara lanean, artean munduko foro sozialeko gidari batzuk, eta galdera berriak daude martxan. Baina bestetik, adibide hipotetiko bat jartzearen, haurren zainketaz edo haurtzaindegiez niretzat izan lezake arrazoi gehiago kontserbadore opustar batek sindikalista feminista batek baino. Oso irekia dago dena. Abentura bat da, baina min ere ematen du.

Min horretatik, nola bizi duzu gizartean gailentzen ari den lurrarekiko deslotze eta axolagabekeria orokorrari dagokion ertzeko zatia?

Horretan badugu beste herri batzuetatik zer ikasi. Gurean ideia progresistak ibaian etorri beharrean tsunamian etorri ziren, eta gure aurreko belaunaldi progresistak, ebaki egin behar ziren gauza batzuk moztu egin ditu. Ebakiak zauria egiten du, baina gero orbantzen da, eta beste zerbait sortzeko aukera dakar. Behatza moztzen baduzu, aldiz, moztu duzu eta kito. Uste dut gurean aita hiltzeko behar freudiar bat egon dela, neurri desproporzionatu batean. European, berriaren eta tradiziozkoaren arteko dialektika patxadatsuagoa egon da, beharbada ideia modernoak lehenagotik eta polikiago iritsi zaizkielako, eta hemen berriz, emozio gehiegi sortu zuten ideia progresistek. Gure aitona-amonak modernitatearen aurreko etapan bizi izan ziren, eta guk hanka eta erdi postmodernitatean daukagu jada. Alde horretatik, sekulako liseriketa daukagu egiteko. Horrek arrisku eta kalte guztiez harago, aukera bat eskaintzen digu, oso elementu desberdinen nahasketa garelako, etapa diferenteen koktela. Ingalaterrako *Transition* mugimenduan petrolio merkearen post-arorako prestatzen ari dira, eta iraganean pista batzuk badituztela jakin arren, oso urrun daukate iragan hori. Guk askoz gertuago daukagu, eta ez gara orain orduko nekazari gizarte hura idealizatzen hasiko, baina beharbada, neurriaren zentzua, zaharra eta berria kudeatzeko serenidadea, bizitzaren begiratu espirituala, lurrarekiko harremana, edo eskulanarekiko lotura bezalako elementuak landu beharko ditugu laster. Kontuz moztu eta ebaki nahastearekin. Berritasunak bizi gaitu, eta eskerrak. Aldi berean, zenbait gauza ezin dira asmakizun berrietan ondo oinarritu. Hizkuntzetan oinarritzen da gizakia, eta hizkuntzak arnas luzekoak dira.

Beste ertzeko zati batera garamatza horrek: erlijiora.

Olde progresistak moztu duen gauzetako bat bizitzaren azken galderen gaia izan da. Nire-



AZKEN HITZA

Esnoba

"Berez herri honen esperientzia txiki-tatik egin litekeen produkzio intelektua-la oso interesgarria da. Baina ez dugu aski aprobetxatzen, gogoeta auto-zen-tratua falta zaigu, esnoba da ohiko jarrera. Esnoba da kanpoan indarrean dagoena herrira ekarri nor sentitzea. Hori ere behar da, baina patroï hori gehitxo nagusitzen da gizartearen eli-tean eta kulturale askorengan".

tzat, bizialdi labur honetan ibilalditxo egite-rakoan, zentzuaren galderak baztertzea ez da ideia ona. Azken galderen irekidura hori inte-gratu nahi dut nire jardunean, osoago senti-tzen naiz horrela. Kultura jaso dudak moduan, kultura espiritual bat ere iritsi zait, eta muinean altxorak ditu, eta beste tradizio espiritual handiek ere bai. Hizkuntzak dira. Metaketa handi bat dago hor, hinduismoa eta budismoa adibidez, oso emari lodiak dira. Azken 200 urtetako ideologia modernoek eman dutena baino gizakiaren tolesdurei buruzko ekarpen gehiago dago arnas luzeko tradizio espiritualetan. Horren guztiaren aurrean isiltasun apur bat gehiago egiteko aroan gaudela esango nuke. Espiritualtasuna dei dakioke gure geruzarik sakonena eta oso-tasuna ukitzeari, arlo hori lantzeko moduei, eta asko izan litezke. Jakina, nola ukatu erli-jioen kalteak, eta susmoaren maisuek egin zuten gisan, susmopean egon behar dute. Biei begiratu nahi nieke aitorenpetik eta dis-tantziatik: sustrai erlijiosoari eta sustrai pro-

gresistari. Giza-animaliaren ezaugarria da itu-riaz eta zentzuaz galdetzea, galdera existen-tzialera irekita dago gure espeziea. Eta giza-kiak sortzen duen kulturaren adar bat horri erantzunez sortzen da.

Galdera-erantzunez ari gareno, ertzeko zati batean neskato brasildar batek egiten dizun galdera egingo dizut: "Lana daukazue, dirua daukazue, autoa daukazue... Zer falta zaizue, orduan?"

Lurrik Gabekoen mugimendu sozialean ze-bilen ikasle hori hemengo batekin konparatuz, hemengo ikasleari hark zeukan zentzuaren dentsitatea falta zaio. Norabide baten senti-pena. Besteak beste gizarte opulento bati dagokion arazoa da, eta areagotu egiten da, dimentsiorik sakonene-kiko deskonexioarekin nahasian. Hemengo belaunaldi gazteenak badira apur bat palaziotik atera gabeko Buda gazteak, heriotza, gaitza eta zahartzaroa ezkututzen zaizkienak. Dena konponduta zeukan palaziotik irteten da Sidharta, hain zuzen ere, dena konponduta zeukan bizimo-du horrek ez diolako ezer esaten bere azken galderari buruz.

Beste ertzeko zati honek eman dezake pista bat: "Belaunaldi bat minimoak amestera iris-ten ez denean, zera egin behar du; geratu, eta hurrengo hamarkadarako jauzi bat pentsatuko duen belaunaldia prestatu".

Beti gabiltza herrigintzari eta euskalgintzari jira eta bira, epe laburreko estrategietan buru-belarri sartuta, baina pentsamendu eta ekintza organikoan ari gareno arnas luzean pentsa-tzeko ohitura falta zaigu. Hamarkada eta belaunaldi terminoetan pentsatzen ikasi behar dugu. Mundua gidatzen duten eragile ezkutu batzuek hala egiten dute. Gure iraga-nean Azkoitiko zalduntxoak edo Gasteizko seminarioa datozkit gogora. Behar dugu pittin bat hortik ere. Esaldi horretan kitxuei buruz ari nintzen, eta euskararen bidez ere bai. Euskalgintza estrategia mailako ilunaldi batean dago, eta segur aski behar duen garabi-dea lortzeko tapoi handiegia ditu. Batetik egoera demo-linguistikoa hor dago, eta beste-tik hizkuntza-politika ideologia modernoeta-tik kudeatzen da, baina ideologia modernoek *liberté*, *égalité* eta *fraternité* uztartzeko ahalegi-nean, *identité* pentsatzeko gramatikarik ez dute sortu. Uneotan, belaunaldi honetako elite ekonomiko, politiko eta kulturalak euskarari onartu ahal diona, eta euskarak benetan gara-tzeko beharko lukeena ez datoz bat. Ez gaude trantsizio garaian amestutako egoeran, amets handiegia zen, zegoen gaitasunerako. Orain amets doituagoa egitea tokatzen da, eta isil-pean gaitasunak prestatzen joatea. ■

• Daniel Dayan, kolono judutarra •

«Ez gara bakerako oztopo, segurtasunaren bermea baizik»

Azken agerraldi publikoa irailaren 26an egin zuen Dayanek, Zisjordania iparraldeko Revava asentamenduan. 2.000 pertsona inguru bildu ziren, ospatzeko kolonia eraikitzen hasi direla berriz, azken hamar hilabeteetan geldirik egon ostean. Argentinan jaiotako informatikaria, Yeshá Kontseiluko burua ere bada gaur egun, Zisjordania eta Jerusalem ekialdeko kolonoak elkartzeko sortu zen erakundea.

ALBERTO PRADILLA

Argazkiak: Oiarso Los Arcos



M-16A BIZKARREAN daramaten bizardunen-gandik urrun dago Dayan, aurpegi atseginekoa da, baina helburu bera du, eta normaltasunez hartu du garaipena: etenaldia bukatu da eta beraiek lurralde okupatuetan eraikitzen jarraituko dute.

Irailaren 26an bukatu zen kolonia eraikitze-ko etenaldia, Benjamin Netanyahu dekretatua. Zer gertatuko da orain?

Normaltasunera bueltatuko gara. Horrek ez du esan nahi milaka etxe eraikitzen hasiko garenik, noski. Itzuliko dena aurreko bizi martxa da, komunitateak naturalki handitzeko beharra duenean lan egingez. Baimena duen orok eraikiko du, lan, diru eta esfortzu handiarekin lortzen dira-eta baimenak. Egia esan, ez dugu ezer ospatzeko. Garai zaila bukatu da eta normaltasunera bueltatu nahi dugu. Sentitzen dugu hau gertatu izana, baina uste dugu orain ez dela momentua manifestazioak egiteko, betiko bizimodura bueltatzekoa baizik.

Nazioarteko komunitateak eta Israelgo gizarte-ko hainbat sektorek uste dute kolonoak zaretela palestinarrekin bakea lortzeko oztopo nagusia.

Sektore horiek oker daude. Israel barruan gutxiengo dira, argi ikusi zen 2009ko otsaileko hauteskundeetan: gurekin ados dauden partiduek garbi irabazi zuten, hau da, Judea eta Samaria Israelentzat ezinbestekoak direla uste dugunok. Estatu demokratikoa da hau, beraz iritzi ezberdinak onartzen ditugu. Nire tesia sinplea da: oker daude. Beraiek Tel Aviv ez dute Judea eta Samaria-ko mendietatik bezala ikusten, ez dute nire etxetik ikusten gertatzen dena. Euren ikuspuntutik ezin dute ikusi palestinarrek Israel suntsitzeko duten gogo. Ez gara bakerako oztopo, segurtasunerako bermea gara, eta Israelen segurtasuna bakerako baldintza funtsezkoa da.

Joan den irailaren 2an, Benjamin Netanyahu eta Mahmoud Abbases israelarren eta palestinarren arteko hizketaldi ekin zieten berriro. Uste duzu elkarriketa hauek erlijioaren inguruko gaiak konponduko dituztela?

Elkarriketa hauek ez dute ezertarako balio. Garatzen ari diren bide bakarra estatu palestinarrena da eta hau jada nahiko landua dago. Ezinezkoa da, palestinarrek eskatzen duten minimoa oso urruti baitago Israelen bizirau-

teko eskatzen duen minimotik. Estatu palestinarra sortzeko proba Gazan egin da, bertan ez dago ez judutarrik, ez israeldarrik. Eta hor denek ikusi ahal izan genuen emandako euro guztiak estatu palestinarrek ez zituela errepideak, eskolak edo ospitaleak egiteko erabili, Israelen kontra erabiltzeko armak erosi zituen. Berdina pasako da Judea eta Samariatik joaten bada Israel, baina oraindik eta emaitza bortitzagoekin, Israelen erdigune metropolitarrak garrantzitsuenekin egiten dutelako muga, Tel Aviv edo Jerusalemekin, adibidez.

Orduan, zein izan daiteke gatazkarekin bukatzeko konponbidea?

Egoera honek ez du bat-bateko konponbiderik. Egin beharrekoa egoera kontrolatzea da eta ez konpontzen saiatu, ez baitago gatazka honetarako behinbetiko konponbiderik. Matematikariek esango luketen moduan, soluzio gabeko ekuaizio sistema da hau. Horregatik egin beharreko lana lurraldean

bertan egoera hobetzea da: denentzat segurtasun gehiago, israeldar eta palestinarrentzat, aukera ekonomiko gehiago, giza eskubideen egoera hobetu. Konponbide politikoak itxaron egin beharko du, agian etorkizunean zer bait aldatu eta posiblea denerako. Horrek esan nahi du palestinarrek ez dutela hemen-dik gutxira estatu independenterik lortzerik

izango, baina kontuan hartu behar da hauteskunde demokratikoetan parte hartzen duten Ekialde Hurbileko arabiar bakarrak direla. Pribilegio hori ez dute Kairoko biztanleek, ez Tripolikoko libiarrek, ez Riadeko saudiek. Bai ordea Nablus-en eta Ramallah-n bizi diren palestinarrek. Hau al da egoerarik egokiena? Ez, noski. Baina

errua palestinarrena da, behin eta berriz baztertu dituztelako lurra banatzeko egin diren eskaintzak. 1948an egin zuten, baita 2000n ere, 2008an, eta orain horren ondorioa jasotzen ari dira, baita egin duten aukera moralaren —ez morala, hobe esanda— ordaina: Israelen indarrez bukatu nahi izatea.

Jakina da Amerikako Estatu Batuek harreman estua izan dutela betitik Israelekin, eta diote asentamenduen eraikuntza gelditzea oinarritzko baldintza dela bakea lortzeko. Oso arraroa da AEBek hartu duten papera. Israelen proposatu eta onartutako negoziazioak zuzeneko eta aurrebaldintzarik gabekoa izan behar zuen, eta palestinarrek aurrebaldintze-

"Israelen proposatutako negoziazioak aurrebaldintzarik gabekoa izan behar zuen, eta palestinarrek aurrebaldintzekin hasi ziren. Xantaia egiteko modua da hori, argi dago ez dutela bakea nahi"

"Egin beharrekoa egoera kontrolatzea da, status quo mantendu, eta ez konpontzen saiatu, ez baitago gatazka honetarako behinbetiko konponbiderik"

kin hasi ziren. Xantaia egiteko modua da hori. Ez badute negoziatu nahi, bakea ez bada garrantzitsua beraientzat eta aurrebaldintzak jartzen aritu behar badira, argi dago ez dutela bakea nahi. Hori da Obama eta nazioarteko komunitateak esan beharko lioketena Abbas eta bere lagunei, eta ez Israel presiopean jartzen aritu, gertatu den bezala. Israelek ere jarri zitzakeen aurrebaldintzak, baina ez du egin horiek zirelako jokoaren arauak. Palestinarrak xantaia egiten ari dira etengabe, bai Israeli baita nazioarteko komunitateari ere, eraikuntzak eteteko eskatuz. Bederatziti hila-bete eta erdiz Israelek eraikuntzak eten zituen eta palestinarrek ez zuten ezer egin, ez ziren negoziazio mahaian eseri, eta orain estortsioa egiten ari dira Israeli; guk ez genuke hori onartu behar. Nik nahiago nuke gai honetan Israel laguntzen duen bitartekari zintzo bat.

Esan duzu ez duzula sinesten estatu palestinarra sortu daitekeenik. Beraz, onartuko zenuke Zisjordania Israelgo estatuarekin elkartzea?

Ez dakit zein den konponbidea, baina hurbileko etorkizunean ez dut behin-betiko soluziorik ikusten, aipatu moduan. Mantendu dezakegun oreka bakarra oraingo *status quo* mantentzea da, moralki justua da. Badakit Judea eta Samariako lurak etengabeko gatazkan daudela, guk gureak sentitzen ditugu eta eurek eurenak, baina gogoratu dezagun gu hemen sartu ginela 1967ko gerratearen ondorioz, eta arabiarren helburua judutar guztiak akabatzea izan zen. Gerratea irabazi genuen eta guk gurea sentitzen dugun lurralde eremu handi bat askatu genuen. Beraiek irabazi izan balute, hemen ez litzateke ez israeldarrik ez judutarrik egonen. Beraiek jarri zituzten jokoaren arauak mahai gainean eta arauak errespetatuz Israelek irabazi zuen. Moralki

XIBEROA, LAPURDI ETA BAXENABARREKO BERTSULARI XAPELKETA FINALERDIAK 2010

WWW.XILABA.NET



GABADI URRIAREN 23AN - 17:00ETAN HERRIKO GELAN



Sustrai Colina
Miren Artetxe
Mixel Aire "Xalbador II"
Paixi Iriart
Ximun Cazaubon
Joanes Elxebarría

Laguntzaileak:

argia



"Judea eta Samarian sartu ginen 1967ko gerra irabazi ostean. Beraiek jarri zituzten jokoaren arauak eta Israelek irabazi zuen. Moralki beraz, ez dugu inolako arazorik".

beraz, ez dugu inolako arazorik palestinarren aurrean.

Kolonietako kideei hainbatetan leporatu zaie inguruan bizi diren palestinarrek erasotzen dituztela...

Orain dela aste gutxi lau israeldar lurperatu genituen, horien artean emakume haurdun bat, bikote bat eta mutil gazte bat, lauak Palestinako terroristek erailak. Hemen dagoen biolentzia, palestinarrek israeldarren aurka egiten dutena da. Egia da Judean eta Samarian bizi garen 300.000 israeldarretatik talde txiki bat dagoela biolentzia erabiltzen duena erantzun gisa, baina ez dituzte pertsonak hiltzen, eta palestinarrek bai. Nik gaitzetsi egiten ditut ekintza horiek eta ahal dudan neurrian saiatzen naiz berriz errepika ez daitezen. Gainera, uste dut gure kalterako dela, baina ez dezagun ahaztu biolentzia hiltzailea palestinarrek egiten dutena dela, israeldarren aurka.

Esan al daiteke bizikidetzak kontuan hartuz, zuek nazioarteko legalitatetik at ari zaretela lurralde palestinarretan eraikitzen?

Ez dut terminologia hori onartzen. Uste dut bizikidetzak oinarritzokoa dela, ez dago beste aukerarik. Bakearen oinarria ezin da izan jendea bere etxetik botatzea, judutarrek nahiz palestinarrek izan. Bakea bizikidetzan baino ezin da oinarritu. ■

argia.com Israeldarrak elkarriketatuta, diaporama osatu du Pradillak. Gure webgunean ikusi ahal izango duzu emaitza.

BIZKAIKO DEUTSOLARI KAPARRAK 2010

4. KOMPORAKETA

urriaren 31n, IGORREKO KIROLDEGIAN 17:30ean

**ENEKO ABASOLO
ORTZI GARITANO
BENAT VIDAL
PEIO ORMAZABAL
JOANES IGEREKI
MIREN AMURIZA**

Gai-emoia:
LEIRE AURREKOETXEA

FLAZ HAZI GARA .com

Bizkaiko

BFA DFB

bbk

IGORREKO UDALA

LAGUNTZAILEA

argia

EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**



Informazio gehiago nahi baduzu: **ARGIA**

Industrialdea 15 • 142 P.K.

LASARTE-ORIA 20160

Telefona 943 37 15 45

posta-e: denda@argia.com

<http://www.argia.com/makilak.htdocs>

Egia da, aitor dut

Zoriontsu nintzen, zoriontasunik ez zegoela sinestarazi ninduzuen arte. Zoriontsu nintzela adierazten nuen bakoitzean, ez zidan inork sinesten. Zoriontsu nintzela esaten hasi, eta berehala heltzen zitzaizkidan desgraziak. Oraingoan zer hartu duzu hola tontotzeko? Esan ezazu bertan atrebitzen bazara. Zer gezur kontatuko diguzu? Horrela ziztatzen ninduten. Gizakia zoriontsu izan daitekeenik pentsatzea ere ezinezko baita. Zoriontsu nintzen, bai, baina nire zoriona bezain handia zen nire bakardadea. Oso bakarrik nengoen, erabat ero edo libre dagoen pertsona bezala. Eta zoriontasuna bakar-bakarrik eta ero-ero edo libre-libre zaudela bizitzeak ez dauka inolako graziairik. Zoriontasuna ezin eramanezko laidoa zen. Niretzat hura gogaikarria zen ezin gehiago. Nik erabaki beharrekoa zen zoriontasunarekin gelditu edo aldegitia. Orduan nire depresioaz, nire tristeziak, nire zoriontasun ezaz mintzatzen hasi nintzen lau bazterretan, eta mundu guztiak sinestu zidan: eginahalak egiten nituen kanpoan eguzki-argia ala ekaitza egin eguraldiarengatik beti haserre jartzeko, batez ere igandetan; koloretsua zen arropa guztia bota nuen nire arropa-armairutik, beltz huts-hutsez janzten hasi nintzen nire bizitzako ekimen guztietan, bereziki urtebetetzetan; gorrotoz begiratzen nien saltsa dantza-ikastaroetan zebiltzane, piperrik ere ez zitzaidan inporta ez dakit nongo Isabel lehengusina haurdun zegoela entzuteak, eta deskuidoan, izorrai, herriko Isabel guztiak haurdun geratzen ziren hilabete hartan; ni ere bost oinaze eta neke sufritutakoa nintzela erakusteko goren-goreneko eszena tristeak antzestu nituen etxean eta tabernetan, poesia idazten hasi nintzen, poesia ilun-iluna, zoritxarrari nion nire maitasun eta nire fidelita-


CONCETTA PROBANZA



José Luis Padrón



Sarasola



Urkiza

teari buruzko poemak, eta saritu egiten zidaten han eta hemengo literatur lehiaketetan, Kritika Saria ere eman zidaten 1997an, kontuak atera; lagunak egin nituen barra-barra, lagun oso zoritxarrekoak, lagun dohaka-beak, elkarren kontra estu-estu eginda ibiltzeko kopuruan, batez ere euskal

idazle, artista, intelektual eta kulturako jendearen artean, eta denok ados geunden, denok, Frantziako komedia existentzial baten aurkezpen egunaren ondoren, zoriontasuna –homosexualitatea elizarentzat bezala– zerbait antinaturala zela azpimarratzen genuenean, desesperantza bortitza lagun onartu nuen nire izaera berri sentikorraren barru-barruraino. Gustua hartu nion. A ze plazera nire zorigabea azaldu ahal izatea, a ze plazer handia. Zer pozik jartzen nintzen jendearekin nire bizitza tamalgarriaz elkarriketan aritzen nintzenean, zer pozik ni, eta zer pozik haiek ere, sorginduta bezala entzuten nindutenean, pozez zorutzen, psikoanalistaren arreta biziaz. Urte zoriontsuak haiek! Nire bokazioa zen, tipo benetan tristeza izatea. Eta hala izan naiz, gaur arte. Baina garaia joan da, joan! Inguruan ez da ezer aldatu, baina ni bai. Entzun orain nire aitortpena, ene oihua: Ahi-turik nago! Asperturik! Nazkaturik! Zoritxarrekerietan gastatu ditudan berrogei urteen ondorioz! Gehitxo da! Ask! Egia da, aitor dut, ez sozialista, ez kapitalista, ez faxista, ez komunista, ez hinduista, ez musulmana, ez

kristaua, nik orain eta hemen zoriontsu izatea erabaki dut, eta munduan ez dago ezer nire erabakian atzera eragingo didanik! Aditzen? Ez izan esperantzarik nire erabakia ezetsiko dudarik! Zoriontsu izaten debekatzen didazuen zibilizazio, gizarte, eliz, elkarte, alderdi politiko guztietako bazkide tristeak, poza eman nahi al didazue? Zoazte pikutara! ■

Ez sozialista, ez kapitalista, ez faxista, ez
komunista, ez hinduista, ez musulmana, ez
kristaua, nik orain eta hemen zoriontsu izatea
erabaki dut, eta munduan ez dago ezer nire
erabakian atzera eragingo didanik!

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Xipri Arbelbide

APAIZA ETA IDAZLEA


Zuzentasunaren izenean, zuzengabekeria

Ibili naiz ni ere Baionako karriketan, moda berriko prozesioetan. Nolaz eska diezaguke gure gobernuak garizuma egitea, Sarkozyk bere soldata ederra %150ez emendatu ondoan? Bettencourt aferarekin ikusten dugularik zein errexi erabiltzen dituzten milioiak? Nola eska herriari indar bat, mundu osoa (salbu zuek eta) kakaren erdian sartu duten bankeroetarik bihi bat ez delarik preso?

Karriketan nindabilela, gogoeta nindagoen. Ez ote da gure arduradunen eta gure artean dagoen leize hori berbera, gu eta egunean euro batekin bizi diren mila milioi jendeen artean? Gu goiti joateko haiek oraino beherago erori behar.

Patxi Lópezek erran du 500.000 etorkin behar ditugula ondoko 20 urteetan, “gure” garapena segurtatzeko, bai eta denen erretiroa. Cristina Garmendia ministroak berriz, puntako 8.500 enpresa berri sortu behar dituela Nafarroak bost urtez. Hemen ere etorkinak beharko.

Nondik etorriko dira ez bada hain zuzen, egunean euro batekin bizi diren horien artetik? Beren herrian ongi balira ez litezke hona etorriko, bidaia dakizuen baldintzetan egin ondoan. Horrenbeste dozena mila seme-alaba Ameriketara joan zaizkion Euskal Herriak ez ote luke sentibiltate gehixeago behar puntu honetan?



DANI BLANCO

Garapena izanen dela horientzat gauza segurua, ez badira gu bezain ongi bizi ere, han baino hobeki baitira. Baina lanean aritzeko adinean etortzen zaizkigu: “Errentable”. Ordura arte, norbaiti gusta zaio horien sortzea, haztea, hezte, artatzea. Lanean hasi arte, pertsona bat 200.000 euro gostatzen da. Langileak musu-truk heldu zaizkigu. 500.000 etorkin, 200.000 eurotan bakoitza, heldu da 100.000.000.000 euroko oparia. Eibarko lantegiek lanabesak Afrikarat musu-truk igortzen dituzte?

Munduko pobreenek 100.000 milioi euroko oparia eginen diote, beraz, Euskadiri, Patxiren ametsa gauza dadin! Patxi eta euskaldun guziena. Ezkerrak eta, sindikatuek ere amets bera baitute. Nori zer axola zaio, etorkinen bizkar bizitzea? Nori zer axola zaio, herrialde pobreenen garapena?

Uste dugu Mugarik Gabeko Medikua eta beste harat igorritz gaitzeko oparia egiten diegula. Hango zenbat mediku ez da Europan ari lanean? Beningoen erdia baino gehiago hemen nonbait dago, ikasketak han egin ondoan. Han medikuak eskas direlarik.

Egoera hori normala da? Bere burua zibilizatutzat daukan gizarte batena?

Horrek irauin dezake? Ez ote ditugu horiek denak egun batez pagatuko eta ongi pagatuko? Guk ez bada, gure hurrek. ■

«
Munduko pobreenek
100.000 milioi euroko
oparia eginen diote, beraz,
Euskadiri, Patxiren ametsa
gauza dadin! Patxi eta
euskaldun guziena
»

TXANDAN

Edn Zelajeta



Jendeak isuria bezala ematen zuen atari barre-netik San Antonio kaleko espaloira, Gasteiz erdialdean, eguerdi betean. Ingurukook mandatuak egiteko itxuran genbiltzan (ni neu ogi eske nindoan, bai eta Sarriren *Idazlea zen zara, irakurtzen duzulako* nola Ramon Flecharen *Compartiendo palabras* liburuak eskuratzerare). Pertsonen ilara luzea bezain ñabarra zen. Hantxe erabaki nuen argazki makina ateratzea, errealitate puska hori biltzeko, etxera eramateko, solasean lagunekin partekatzeke. Froga garbia erdietsia nuen inondik ere: prestazio

Argazkia(k)

sozialei buruzko informazio-bulegoa etorkinez josita dago. Eurek xahutzen dituzte geure sosak.

Argazkiek beti erakusten dute erakusten dutena, gustatu ala ez. Hor ez dago tranparik, ez iruzurrik. Diskurtso *progreak* ezin du magal gozorik aurkitu halako ebidentzien ondoan: diru-laguntzak etorkinen artean banatzea bidegabea da.

Argazkiek erakusten duten hori bakarrik eta soilik erakusten dutelako, behar ditugu argazki asko, politikoki zuzen jokatu gabe, mundu konplexu eta nahasi hau argazki bakarrean bildu nahi izateko asmo inozan erori gabe. ■

Joxe Mari Anzumendi

HIK HASIKO KIDEA

Langile ikastola?

R

ing, ring, ring!

– Langile ikastola: Bai, esan?

– Deitzailea: Langile ikastola al da?

– Li: Bai; beno, ez. Barkatu, ni berria naiz eta beste bat jarriko

da... Bai, esadazu.

– D: Langile ikastola da, ezta?

– Li: Bai; baina, ez. Herriko DBH guztiek bat egin dute institutuarekin eta “Hernaniko institutua” deitzen da orain.

– D: Ikastolaren erabakia izan al da?

– Li: Ez, ez! Administrazioak erabaki du.

– D: Langileko gurasoen onespentik gabe? Denak batera egonda, gela asko sortuko ziren DBHko 1. mailan, ezta?

– Li: Sei gela.

– D: Hainbeste gela egotea ona al da?

– Li: Bere alde onak baditu. Herriko gaztetxo guztiak elkarrekin egon litezke, eta aukera gehiago egongo da hainbat hautazko ikasgai eskaintzeko. Gainera, herriko ikastetxea izango da.

– D: Herrikoa bada, Udalak zeresana izango zuen eta izango du institutu berriaren antolaketan, ezta? Nik dakidala, Holandan, duela urte dezente institutu handiak egiten hasi ziren, eta emaitzak aztertuta, berriro ere institutu txikiak, ikasle gutxiagorekin, jar-tzea erabaki zuten.

– Li: Beno, Udalak ez du parte hartu prozesu horretan guztian, berak ez baitu hezkuntzan eskumenik. Holandakoa, berriz, ez da inoiz aipatu hemen.

– D: Munduan egiten diren neurketak kontuan hartzea ona litzateke. Neurtzen den hartan, Finlandiak



ALBERTO ELOSEGI

ematen ditu emaitza onenak. Hura da askorentzat eredu. Han, Udalak du hezkuntzako eskumena, eta, ondorioak ikusita, gurera ekartzea egokia izan liteke, ezta?

– Li: Esan dizut, Udalak ez du horretan ahalmenik.

– D: Entzunda nuen, bestalde, Langilek 2-16 urte bitarteko ikasleak hartzen zituela eta hori zela gurasoen nahia. Beraz, ez da hori horrela.

– Li: Noski ezetz! Lehen ere juridikoki bi zentro ziren: 1. Haur eta Lehen Hezkuntza, eta 2. Bigarren Hezkuntza. Koordinatzen ziren eta ikastetxe bakar bat bezala funtzionatzen zuten. Administrazioaren-tzat, aldiz, bi ikastetxe izan dira beti.

– D: Aurten, hezkuntza porrota ikusita, 3-16 urte bitarteko hamaika ikastetxe publiko ireki dira Katalu-nian, modu esperimentalean; horrela, hezkuntza emaitzak hobetuko direlakoan.

– Li: Ez daukagu horren berri.

– D: Zer hezkuntza proiektuan oinarritu da institu-tu berria?

– Li: Hori, orain zehaztuko da.

– D: Finlandian, Hezkuntza Proiektua egiten da lehenago, eta gero, eskola, institutua... Behar dena.

– Li: Ikusi beharko da zertan geratzen den dena.

– D: Ikerketen arabera, gestioa gertukoak denean eta eskola komunitateak parte hartzen duenean, era guztie-tako emaitzak, ez soilik akademikoak, hobeak dira.

– Li: Orain zehaztuko da gurasoen parte-hartzea, eta gainerakoa. Zerbait gehiago nahi duzu?

– D: Beno, ba, mila esker informazioarengatik. ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Badirudi ere, egia berda-deroa da. Kazetari espai-nolak, nik irratiz eta tele-bistaz entzun ditudan

denak, Venezuelako enbaxadoreak mingain preserbatiboaz egin deklarapenak asaldatu ditu. Espainiako polizia tortura erabiltzen duela iradoki du. Ez du ahotsa goratu, ez du tonua igo, ez du giza eskubide oinarritzkoenetakoa errebindi-katu, ez du espainol demokraziaren ustela salatua. Eta iritzi publikoaren manipulatzailak ohiko egoe-ra ezaguna behingoz onartu beharrean, mezulari uzkuraren gainera jauzi egin eta egurtu egin dute

Adar jotzea

inpunitate osoz. Nor da, bada, erregi-men diktatorial baten ordezkaria gurea bezalako demokrazia zalantzan ezartzeko? Zer ari da, bada, venezue-

lar bat gure polizia iraintzen, bi terroristen salake-tak egiazkotzat hartuz? Onartezina. Etxean ere, gai elektrikoa da tortura, ukiezina. Fusiblea erre-ta dabilta etxeko hedabide gehienak torturari dago-kionean torturatzailen klonatzerako. Eta praktika-tan dabilen bekarioa, fusiblea aldatzeko asmotan joan dena kanpoan eman dute saboteatzailetzat joz.

Izan ere, gazte hauek ez dakite ezer. ■

BERTSO BERRIAK

Unai Agirre

Txakurrak hankutsik

NAGORE LEGARRETA



I

Asteleheneko resaka:
korrika eta presaka,
iratzargailua saka.
Goizeko seiak, hasia nago
zaunkaka gaizki esaka:
“Kaka! Ta bi aldiz kaka!”
Etzetik irten ta, kanka!
Berrero sartu det hanka.

II

Lau hankakoen kasoa,
goizeroko arazoa,
bertso sail batek jasoa.
Sudurrak behar ditugu libre
eta zorroztua soa:
kendu begiko lausoa,
kontu non eman pausoa...
minatu dute auzoa.

III

Hustu ezkerro barrenak,
daramala dakarrenak,
emeenak nahiz harrenak;
multa, eskari, amenazuak...
bat, bi, hiru... hamarrenak;
alperrik dira arrenak!
Nonahi daude aztarrenak;
hanka bikoak txarrenak!

IV

Hitz txarrik zeinek ixuri?
Pintto, Lagun, Laika, Txuri...
handi, txiki, argal, guri...
Txakurren menpe bizi beharra
egokitu zaigu guri.
Zazpi, sei, bost, lau, hiru, bi;
zenbat mutur ta irudi!
Zoologikoa dirudi!

V

Arkakuso ta barkazta,
nahiz etxean sartu, zasta!
Begiak itxi ta basta.
Eske txakurrak ligatzeko ere
ba omen du arrakasta:
- Ze pedigria, ze kasta!
- Ze fin egiten dun hazka!
- Zure begi berak dauzka.

VI

Beste moda bat doi-doia:
indarraren arrazoa;
handienaren galoia.
Borrokarako zakurren grinak
ere orain jo du goia:
Rodwailerraren sasoa;
Pitt Bullaren armazoa...
tigrea eta lehoia.

VII

Lehoi, tigre, basakatu...
herriak piztiz kargatu;
baietz hamar azkar batu.
Kontra egitera behartuz gero,
hobe da ondo armatu!
Nahiko bazenu ausartu,
bakea jartzera sartu:
protesi bat enkargatu.

VIII

Trabak luze-laburrean
azaltzen dira aurrean,
nola mendiak Tourrean.
Opariren bat nahi ez duenak
hankape, hankezurrean:
hartu makila urrean,
jarri pintza sudurrean,
ta begirada lurrean.

IX

Garai bateko beldurra:
ostikoa ta egurra,
txakur gaiztoek segurra.
Gaur berriz ondo orraztu eta
azkazalak limaz urra;
nahiz mantaz estali lurra,
nahiz kremaz busti muturra,
zakurra beti zakurra.

X

Eten gabeko katean,
multak etxeko atean,
nituzke instant batean.
Nire beharrak eginez gero,
paseatzera joatean...
Utzi nazaten bakean
espalo eta parkean,
jarriko naiz lau hankean.

2010eko Basarri Bertsoaper Lehiaketako bigarren saria.

DOINUA: “Ezkundu eta ezkongai”.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

Okatxu, hegal egiten Ardi jendea, umorez hordi

Errebelazio handia egin behar dizugu, irakurle: ardiak existitzen dira. Benetakoak, ez autoen ipurdietako pegatinak. Eta itxaron, gehiago ere badago. Artzainak ere existitzen dira. Badakigu, sorpresa askotxo lerro gutxian. Eser zaitez, lasaitu. Eta har ezazu irakurtzeko zerbait, komiki bat, adibidez. Okatxu, hegal egiten duzu aukera polita shockari aurre egiteko: axuri baten bizitzako lehen urtea kontatu dute Asisko Urmenetak, Mattin Irigoienek eta Adur Larreak, beste hainbat lagunekin batera.

GORKA BEREZIARTUA

Argazkia: Dani Blanco

TELEFONOAK jo zuen. Euskal Herriko Artzainak elkartetik ziren deika, proposamen batekin. Euren lana, artzaintza, manera modernoz ezagutzera emateko gogoia zeukatela, komiki baten bitartez, eta ea Urmeneta eta Irigoien prest al zeuden.

Hura izua Asiskok hasieran. Ez, ez da artzainen beldur, prefosta; baina ikara ematen dio “komiki” hitza ezelango didaktismorekin uztartzeak, eta burura datorkion lehen irudia komiki pedagogikoa da, museoko pieza. Izerdi hotzeko amesgaiztotan ikusten du bere

lanetako bat fabrikatik apalera bidean, ikastolaren bateko ariketa aspergarrietan (asko jota) erabili ostean.

Egun txarra, bistan denez. Ze, biharamunerako, mamu guztiak kolpean uxatu eta pentsatu du koordenatu jakin batzuetan, lanbide batekin lotuta, umorezko komikia egitea ere posible dela. Pentsatu eta egin. Berehala lanean hasiko dira Urmeneta marrazkilaria, Irigoien gidoilaria eta Larrea kolorista.

Artzainek ez dute derrigorrezko eskakizun bat besterik: Okatxu axuriak behar du



Aurkezpena Lurraman

Urriaren 25ean aterako da plazara *Okatxu, hegai egiten*. Baionan izango da, Elkar Megadendan, goizeko 11etan. Lekua eta data ez dira ausaz aukeratu: Lurrama azokarekin bat eginez aurkeztuko da albuma. Ezin zuen bestela izan, artzaintzari hain lotua dagoen komikia izanda.

izan istorioko protagonista. Gainontzean, bidea libre. Eta Irigoienek, gidoia idazten hasita, asko estimatu du eskuak loturik ez edukitzea. Lekua zehaztu du aurrenena: Garazi inguruko bortu bat. Gero, istorioa zedarritzearekin ekin dio: uda heldzearekin batera, bortu hartara joango da Okatxu, bizia deskubritzen hastera.

Artaldeak jendarte

Moda-modako hitza erabiltzearen, glokala da *Okatxu, hegai egiten*. Abiapuntu lokala duen istorioa, baina globo osoak gozatzeko modukoa. Okatxu badelako inozentzia galtzen duen gaztearen metafora ere. Askatasuna zer den jakitearekin bat, zaharren heriotza ezagutuko du, baita mendiarekin loturiko iruditeria ere.

Albuma ez da ardiei buruz bakarrik ari: artaldean badaude abere otzanak, baina baita ostikoka ari direnak ere; badira ardi beltzak; badira marroak; badira aitzinean doazenak, eta, nola ez, beti nagusiaren ondotik ibili behar duten milikariak. Kendu artilea eta jantzi kaleko arropaz: edozein herritan topa daitezkeen pertsonaiak dira.

Egileak hasiera-hasieratik aritu dira jolasean mendiaren ikuspegi idealizatuarekin, egiazko Euskal Herria hura dela dioen iritzi bukolikoarekin. Hautsi egin nahi zituzten hainbat topiko eta horretarako, pertsonaia bitxi franko paratu dute istorioan. Zuberoako kanta zaharretako hartz erasokorraren orde, komikian beti beldur den piztia ageri da; *Okatxu*ko saiak ezin die kabalei eraso, espeziearen eboluzio bitxi bat tarteko, lepoan zintzarri salatarioa jaio zaiolako; eta badira artaldearen antzera garraiatzen dituzten gizakiak ere, ardiak eurak baino otzanago.

Okatxu Skywalker

Geruza anitzeko komikia, azaletik leituta entretenigarri, sakonago begiratzeko gonbita egiten du. Inozentea irudi dezake hasieran, Okatxuk ez baitu ulertzen zer gertatzen den bere inguruan. Baina momentu batean, *Star Wars*eko eszena hartan Darth Vaderrek Luc



Asisko Urmeneta, Adur Larrea, Mattin Irigoien eta Kepa Altonaga argazki-saioan ere umorez hordi.

Skywalkerri nola, halaxe esango dio egia txakur batek: "Artzaina ez dun hire aita".

Mota guztietako erreferentziak erabiltzen dituen lana izanda, Urmenetak dio euskaratik eta euskaraz sortu eta garatu dutela proiektua. Eta euskal artzaina erretratatzeko moduan igartzen da: ez da heroia, ezta anti-heroia ere; folklorekeriak bazterrean utzita egindako potreta da, artzainen arteko harreman humanoetan barneratzeko egindako saioa. Ez edozein artzain gainera. Gaur egun goak dira liburuan ageri direnak, bizirik baita ofizioa, eta euskaraz. Irigoienek txikitatik izan du horren ezaguera, hortik pertsonaien euskara ez izatea batua. "Koherentzia aldetik nik ez nuen egiten ahal istorio bat hori tradituz, mundu hori, hizkera hori".

Think tank bat komikiaren zerbitzura

Liburuko euskara Euskal Herri osorako homologagarri izateko eta era berean artzainek beren burua islatuta ikusteko, asko eztabaidatu dute. Laguntza ere eduki ordea, Kepa Altonaga prest



egon baita hasieratik hizkuntz-eztabaidetan ararteko lanak egiteko. Ahalik eta euskara “ekumenikoena” bilatu dutela dio eta, hasierako gidoiarekin alderatuta asko aldatu al den galdetuta, Irigoieni begira, irribarrez dio, batzuen ustez baietz, baina ezetz, ez gehiegi. Irigoienek, ondolik: “Komikia transgresiorako tokia da [barre egin dute gainontzekoek] eta hori ondo etorri zaigu ez sobera aldatzeko”.

Altonaga ez da *Okatxuren* egileek izan duten aholkulari bakarra. Liburua hiru lagunek sinatzen badute ere, komikiak *think tank* oso bat eduki du atzean: Euskal Herriko Artzainak, ARGIA eta Kukuxumusuko ordezkariak, nork bere esparruan, komikilariekin lan egin dute.

Koldo Aiestaran, Kukuxumusuren abentura abiatu zutenetako bat, artikulu hau egiteko espontaneoki osatu den mahai-inguruan izan da. Okatxu ez baita hutsetik sortua: Iruñeko enpresak bere kamiseten bidez

Gaur egungo artzainak dira liburuan azaltzen direnak, bizirik baita ofizioa, eta euskaraz

mundu osoan zabaldua du irudia aspaldian. Interpretazio librexeagoa egin du Urmenetak, eta Iruñeko enpresa hasieratik egon da proiektuan. Aiestaranen esanetan, merkatura-

tu zituzten lehenengo kamisetetik, behiarekin batera, ardia animalia enblematikoa izan da. Gainera, bat egiten dute komikiak eta Kukuxumusuk puntu batean: biek erabiltzen dituzte animaliak pertsonen portaerak erakusteko.

Eta batez ere, umorea barra-barra

Umorea da, duda gutxi, komikiaren zutabe nagusia. Umore anitza, batzuetan autoerreferentziala (artzainaren eta Hegoaldeko bi mendizaleen arteko solasaldi ezinezkoan, adibidez), bestetan oso grafikoa (Okatxu artzainaren hankartean esne bila hastean), baita inoiz umore beltza ere. Elkarrizketatu bitartean eta argazkisaioan ere barrea da nagusi. “Maite ditugun gauza guztiak trufatu ditugu” dio Irigoienek. Orain, irakurleen barreen txanda da. ■

ZIO

● ZIENTZIA
● IRAKURLE
● ORORENTZAT

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Ororentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.



gure artean
euskaraz

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

BFA DFB
Bizkaia Foru Aldundia
Deputación Foral de Bizkaia

BIZKAIA
BIZIA

Literatura

‘Parmako kartusia’, nobela masoniko handia

Fabricek, *Parmako kartusiako* protagonistak, Farnesiori gomendatzen dionean preso dagoen dorretik jaisteko, akazia baten gainean erortzen da. Zergatik aukeratzen du Stendhalek arbola hori? Idazlearen ikerlari frantses bakar batek ere ez zion bere buruari galdera hori egin –eta literatura unibertsalean aztertuenetarikoa da–, erantzunak begi-bistakoa dirudien arren. Alemaniar batek galdera egin duen arte.

LLUÍS BONADA / EL TEMPS

AKAZIA jakintza masonikoaren sinboloa da –“azter nazazue; akazia ezaguna zait”, deklamatzen du maisuak logian– eta erabiltzen da, modu zuhurrean, iniziatuek eta oso adituek bakarrik ulertzeko moduan, anaia masoi kondizioa erakusteko; egiaren eta zorionaren bilaketa eta tolerantzia bultzatzen dituen elkarteko kide izaera. Eta Stendhal bazen.

Cannes-eko Urrezko Palma –adibide bat jartzearen– akazia adarra da. Festibala 1939an abiatu zuen Jean Zay masoiak, Fronte Popularreko ministroa, Veneziako festibalari aurre egiteko –geroz eta faxistagoa eta nazien aldekoagoa–, nahiz eta lehen edizioa, irailerako aurreikusia, bertan behera geratu gerra lehertu zelako.

Akaziaren gainean *erori* zen alemaniarra Dieter Diefenbach da. 1991. urtean zabaldu zuen masoi-aztarnen lehen ikerketa (*Stendhal und die Freimaurerei*) eta ikerketa horrek bide eman dio bigarren bati, sakonagoa, gaiari buruzko lehenengo testu frantsesa bihurtu dena, *Les mystères de La Chartreuse de Parme*, Pierre Alain Bergerrek egin eta Gallimard argitaletxe prestigiotsuak publikatua, Philippe Soltersek zuzentzen duen L’Infini bilduman.

Literatura unibertsalean obra aztertuenetarikoa bada ere, orain gutxi arte inor ez zen ausartu Stendhalen *Parmako kartusiak* masoiekin duen harremanean murgiltzen.



Akazia ez da nobelako aztarna masoniko bakarra. Farnesioaren dorrea bera sinbolismo masonikoarekin bat eginez asmatua da. Pentagono forma du, eta izar forman jarritako bost angeluk –bost punta– osatzen dute masoien izar ezagunena, elkarte sekretuko kideek bultzatutako bandera independentis-

tetan azaltzen dena, Latino-amerikakoetatik estelada katalanera. Atea harrigarri baxua eta estua da hain eraikin inportantearentzat, masoien tenpluko atea bezala, profanoa uzkuruta sar dadin, mundu profanotik iniziatuenera pasatzeko dagoen zailtasuna ulertze aldera. Kaperatako bat marmol beltzekoa da eta marmol zuriko hildakoen buruekin dago dekoratua, maisuaren logian bezala. Gainera, dorrea eraiki bitartean, printzearen aginduz, parte hartu zuten guztiek isilik aritu behar izan zuten, detaile itxuraz absurdu eta alferrikakoa kontakizunean, non eta ez dugun pentsatzen masoiei inposatzen zaien isiltasun legean.

Barrualdeak masoien tenpluaren ezaugarriak ekartzen ditu gogora: ganbera ugari, zabalik batzuk, sekretuak besteak, maisuaren ganbera bezala, profanoarentzat debekatua bai-

tago. Ganberatako batean etxola absurdu bat jartzen du, non eta ez dugun pentsatzen logia hasieran egurrezko etxola bat zela, Fabricek bederatzi hila-bete pasako dituen espazio inizatikoa.


Dorreen preso, Frabricek masoieneren antzeko erritual inizatikoa jasaten du. Berak ere esaten digu, zuhurtziaz: “Zeremonia bati jarraitzen ari nintzaio-la iruditzen zitzaidan (...) nire laguneren aurrean”, eta laguneren aurreko zeremonia da logian egiten dena.

Diefenbach eta Bergherrentzat, *Parmako kartusia*ko protagonistak framazioen antzeko inimizio errituala jarraitzen du. Ihesaren kapituluak pentsarazten du maisuen mailara igo dela. IX. kapituluak Blanes apaizak Frabrice hartzen du Griantako elizako kanpandorreen ikastunarena da. Eta Fabrice kidea XII. kapituluazaltzen da, Bolonian. Fabricek San Petronioren elizan, Bolonian, “bertikalki jarritako burdinazko triangelua” aurkitzen du, “izkinak tente eta arantza askorekin, kandela txikiei eusteko”. Delta Argitsuari egindako erreferentzia da, elkarte sekretuaren sinbolo nagusietako bat. Zazpi kandela baino ez zeuden piztuta. Zazpi zenbakia –Bartzelonako Zazpi Ateak, Askatasunaren Estatua koroatzen duten zazpi puntak– masoienez zifra garrantzitsua da. Fabricek buruan oharra hartu zuen “aurrerago, lasaitasun handiagoz pentsatzeko asmoarekin”.

Idazlearen biografia masonikora daramaten lorratzak ere badira. Fabrice abuztuaren 3an sartzen da dorreen, 23 urterekin, eta adin horrekin iniziatu zen Stendhal Parisko Sainte-Carolineko logian, 1806ko abuztuaren 3an. 23 urte ditu *Gorria eta beltzak*ko Julien Sorel hiltzen deneko adina. Bere lagun frantziarrak dioskunez, Diefenbachek deskubritu ditu konbinazio numeriko ugari, Stendhali aukera ematen diotenak erdi ezkutuan bere inimizio-data sartzeko, abuztuaren 3a.

Bergherrek detektatzen du Stendhalek egituratzen dituela bere kapituluetakoz, Mark Twain framazioak *Huckleberry Finn-en abenturak* liburuan bezala, taroteko arkanonagusienez 22 figura sinbolikoei segika. Stendhalen garaiko masoneria frantsesak astrologia ikasten zuen eta Stendhalek astrologo egiten du Fabrice aita espirituala, Blanes apaiza.

Idazlearen izen artistikoa ere klabe masonikoan pentsatua dago, Diefenbachek dioenez. Egileak aukeratu zuen Stendhal hiri alemaniarraren jatorria Steindal delako eta



Jon Muñozek itzulita, 2008an argitaratu zen euskaraz *Parmako kartusia* Literatura Unibertsala bilduman. *Gorria eta beltzarekin batera*, Stendhalen nobela ezagunena da.

Dorreen preso, Fabricek masoieneren antzeko erritual inizatikoa jasaten du. Berak ere esaten digu, zuhurtziaz: “Zeremonia bati jarraitzen ari nintzaio-la iruditzen zitzaidan (...) nire laguneren aurrean”, eta laguneren arteko zeremonia da logian egiten dena

“stein” hitza –harria– sinbologia masonikoa da. Idazleak hatxe letra gehitu zuen bere balio numerikoagatik.

Stendhalek nobela eskaintzen dio “to the happy few”, *Gorria eta beltzak*aren lehen bolumenarekin egin zuen bezala, baita Italiako pinturaren historiarekin ere. Eruditua mugatu dira esatera “happy few” esapidea –zoriontsu diren apurrak– Shakespearek ere erabili zuela (*Henry V.a*), baita Oliver Goldsmithek ere –beste masoi bat, dena esateko– (*Wakefieldgo bikarioa*). Orain, Bergherrek eta Diefenbachek gogorazten digute horrela esaten diotela beren buruari masoi ingelesek. Modu horretara identifikatzen ditu masoienez anaitasun-ereserki batek, *Ye Happy Few* izenekoa, hain zuzen.

Oso logikoa da Stendhal masoi ingelesekin harremanetan egon izana bere Londresko egonaldietan. Gutxienez, izan behar zuen haien ezaguera sakona. Ingalaterran kolaboratzen duen aldizkariak, *London Magazine*-ek, adibidez, masoneria-ri eta arrosa-gurutzei buruzko artikuluak biltzen ditu.

Bergherrek eta Diefenbachek uste dute Stendhalek nobela anaia masoiei eskaini zuela. Hori bai, Stendhalek harrezakeen espresioa hitz egiteko arima sentikorrei buruz orokorrean, lagun bati gutunez behin esan zion moduan, jakinda, noski, arima sentikor horien artean daudela, lehenbizi, bera bezalako masoiak.

Ikusitako horrengatik guztia-gatik, Bergherrek –Diefenbach-en inimizioaren ondoren– zera ondorioztatzen du: Mozartek *Flauta magikoa* masoi-opera handia egin bazuen, zergatik ez zuen haren miresle handi izandako Stendhalek pentsatuko masoi-nobela handia egitea? ■

Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)



SIGACUS

943 453 588 · www.sigacus.com

Liburuak

KRITIKA

Jendeen jende.
Mattin Irigoien.
Alberdania. 120 orrialde. 10 euro.

Helduen literatura
Saioa Ruiz Gonzalez



Antzerkien, antzerkien, antzerki...

EUSKARAZ idatzitako produkzio dramatikoak eskasa dela badakigu. Eta idazten den gutxi horrek gizartean daukan oihartzuna are eskasagoa dela esatearekin, ez naiz ezer berririk gaineratzen ari. Eztabaidarako zein erkaketarako aukera gutxi ematen duen euskal-koadro horren aurrean, inkontzienteki ala ez, beste literatura tradizioetan begirada pausatzeraz bultzatzen gaitu. Hala gertatu zait, Mattin Irigoien baxenafarraren *Jendeen jende* antzerki lana dastatzean. Hartu-emanak betikoak eta etengabeak dira. Bi herrialde desberdin izanda ere kezka amankomunak dauzkagu, eta horiek plazaratzeko literatura, antzerkia kasu, baliatzen dugu zenbaitetan. Hortaz, murritzasunaren aldean horra aberastasuna: tradizio (literario) desberdinen topaketa?

Jendeen jende lanak García Lorcaren *La casa de Bernarda Alba* (1936) gogorarazi dit. Bata Euskal Herriko Iparraldean eta beste Andaluzian kokatua. Irigoienena komedia, Lorcarena, ordea, eremu tragikoagora lerratzen da. Baina topaketaz ari garela, garrantzitsuena ez da Nola edo Non, baizik eta Zer: tirania, belaraldien arteko gatazka, ohorea berezko nortasunaren kausa duen landa munduko familia edota (odol) garbitasuna, bilakatu dira garaian garaiko eta tokian tokiko bi plater desberdin prestatzeko osagai.

Irigoienek, familia baten krisi giroan kokatzen gaitu. Mari Ager, tradizionaltasun kontserbadoreenean erroturiko baloreen sinbolo dugu. Matriarkaren kategorian kokatzen duen makilaz lagunduta, bera da Ager "arraza" bizirik mantentzeko esperantza bermatzen duena. Baina horrekin batera, tradizio luze baten amaiera iristear dagoela markatzen du. Euskaldunaren berezko nortasuna, iraganeko landa munduan bilatu behar zela zioen motibo erromantikoa azkeneraino eramana dela konturatzen gara. Errepara bestela, ager latinezko hitzaren erabilera ironikoa, euskaraz nekazari esanahia baitu. Edota Erlaitz izeneko mutilaren kasuari, Mariaren begietan espainola dena, Bilboko hizkeran mintzo delako.


Hala ere, ideologia sendoenetan finkatutako tradizio batean, arraildurak badira. Ager familiak, garbitasun horren azpian ezkututzen duen sekretua ezagutzera gonbidatzen gaitu: tradizioa eta modernitatea, zaharra eta berria, kanpotarra eta bertakoa. Garai batean manikeoak suertatu ziren elementuen nola-baiteko batasuna egiteko momentua iritsi da. Izan ere, nahaste horretan aberastasuna ere badago.

Hauxe da *Jendeen jende*. Topaketaz norbera jabetu dadila. ■

Kreazionismoa eta eboluzioa

Darwinen pentsamendua eta eboluzioa ikas-teko sarrera modura ulertu behar da Francisco J. Ayalaren *Darwin eta diseinu inteligentea* liburua. Biologoa da egilea, eta American Association for the Advancement of Science erakundeko lehendakari izan zen. Lanak mutazioari eta hautespen naturalari buruzko azalpen sakonak eskaintzen ditu, erregistro

fosila eta biologia molekularra aztertzen ditu eta giza-eboluzioaren nondik norakoak azaltzen. Baina ez dio eztabaidari muzin egiten: kreazionismoaren iruzurra salatzen du, zientziaren esparruan sartzen delako behar bezalako metodorik gabe; eta, era berean, zientziak mugak dituela aitortzen du. ■



Darwin eta...
Francisco J. Ayala.
Gaiak.
244 orrialde.
19 euro.

Zientzia, Internet eta filosofia azken 'Jakin'-en

Jakin aldizkariaren azken zenbakiak hiru artikulu nagusi dakartza. Andoni Eizagirrek zabaldu du aldizkaria, *Zientziaren ingurumari soziala* artikuluekin. Gizarteko zenbait sektoretan kezka sortuko zuen gaiari heldu diote Maialen Garmendiak, Carmelo Garitaonandiak, Gemma Martinezek eta Miguel Angel Casadok: Adingabeak eta Internet. EU Kids Online sarearen gomendioetatik abiatu dira artikuluen mamia osatzeko. Eta Javier Aguirrek *Epiktetoren Enkebiridion, bizitzarako eskuliburua* artikulua publikatu du. Horiez gain, Egunen gurpilean sailean Haizea Barcenillak, Iñaki Irazabalbeitiak, Goizalde Landabasok, Lionel Jolyk eta Josu Larri-nagak idatzi dute. ■



Jakin 179.
Batzuen artean.
Jakin.
113 orrialde.
12 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Jon & Sugramas.
Jon & Sugramas.
Gaztelupeko Hotsak.
Iraupena: 46'47".
10 euro.

Iraganari begiratuta, aurrerapauso dotorea

JON GURRUTXAGA elgoibartarra ezaguna da, besteak beste, Arima Beltza talde beteranoko bateria eta abeslaria izateagatik, eta Uek eta bestelako taldeetan makilekin aritu izanagatik. Oraingoan, baina, hurbilekoak eta urrunekoak zur eta lur utzi ditu bere proiektu pertsonalen eta kuttunenarekin. Batetik, alboan, bere konposizioak aurrera eramateko besteak beste Legen Beltza thrash-metal taldeko bi kide izan dituelako; eta bestetik, abesten zein konposatzen

maila ikaragarria erakutsi duelako. AEBetako hegoaldeko rocka, 70eko hamarkadako rocka eta blues-rocka batu ditu, sentimenduz eta sinesgarritasunez betetako piezatan ingelesa eta euskara tartekatuta. Aipatutako estiloez gain, euskal rockaren hastapenetako eta baita 60ko hamarkadako pop-aren distira ere antzeman daiteke. Giriak izango balira!

www.myspace.com/jonsugramas

Jon Gurrutxaga - Jon & Sugramas

«Estilo zehatz bat egiteari garrantzi handiegia ematen zaio eta inportanteena kanta bera da»

“Banekien bota zaharrak berriro jantziko nituela”; “Poltsa hutsik dago, baina arima beteta”. Aspaldiko ametsa gauzatu duzu?

Bai, beti izan dut buruan halako diskoa egitea, haxe baita betidanik ase nauen estiloa. Gainera, nik sortu eta bultzatutako proiektua da, kankak nik sortuak dira eta bidean aurrera egiteko lagunez batu naiz. Oso pozik nago.

Bidaia kankak hemengo rockaren aita den Niko Etxarti keinua dirudi. Hastapenetako euskal rockak izan du zugek arrastorik?

Kanpoko taldeak entzuten hasi nintzen rockaren munduan eta gerora ezagutu ditut euskaraz rocka egiten hasitakoak, Niko Etxart, Koxka... Musika orok du eragina eta Niko karisma handiko musikaria iruditu zait beti.

Bidaia aitatasunaren gaineko kanta ederra da; *I called you* alboko lagunari eskainia; *Duoan sortutako istorioa* aitona-amonen omenez... Biho-

tzez, barru-barrutik, egindako diskoa da?

Bai, mimo handiz eta hitzak zainduz. Era guztietako gaiak jorratzen ditut, baina gai pertsonalak ukitzen dituztenak sentimenduz josita daude.

Sentimendu handia dago abesteko eran...

Beti saiatzen naiz sentimendu handiz abesten, entzuleak hori igarri egiten baitu. Horrez gain, hitzek ere esanahi handia badute zuretzat, are gehiago irteten dira poza, tristura edo malenkonio bezalako sentimenduak.

“Usaina eta gustua benetakoak zuten goizak ditut gogoa”. Zer zuen iraganeko musikak orain ez daukana?

Orain oso musika ona egiten da, kalitate bikainekoa.

Eta ez naiz inola ere atzera begira bakarrik geratzen den horietakoa. Baina onartu beharra dago 60ko hamarkada amaieran eta 70eko hasieran izan zen musika mugimendua oso-oso aberatsa izan zela hainbat estilotan. Sentimendu handiko kankak idatzi ziren orduan. Gaur egun, estilo zehatz bat egiteari, adibidez, garrantzi handiegia ematen zaio; garrantzitsuena kanta bera da. ■



Ezpalak

JON TORNER

Akauzazteren aurrenekoa kasetean eta Lisabö biniloan



AKAUZAZTE taldearen lehendabiziko grabazioa, *Maite Zaitut* (1992), kasetean berrargitaratu du Madrilgo Afeite al Perro zigiluak. Bestalde, Bidasoaldeko Bidehuts kolektibo-

ak Lisabören *Ezarian* lana berrargitaratu du biniloan, diskoa plazaratu zen 10. urteurrenaren harira. Hain justu, Elkarrek bere katalogoko sei disko berrargitaratu ditu jatorrizko formatuan, biniloan, bermasterizaturik: *Noche de rock & roll* (Barricada), *Kortatu* (Kortatu), *Inadaptados* (Cicatriz), *Salve* (La Polla Records), *Hautsi da anphora* (Ruper Ordorika) eta *Bat-Hiru* (Mikel Laboa).

Antxeta Irratia 10. urteurrena prestatzen hasi da

BEHE BIDASOA eskualdean, mugako bi aldeetan emititzen duen Antxeta Irratiak 2011ko otsailaren 14an hamar urte beteko ditu. Baionako Entzun Ikus eta Irungo Pausu Elkarleen artean sorturiko irratiaurren urteurrena ospatzeko zenbait ekimen antolatzen hasiak dira, *Entzun, esan adierazi... Antxeta Irratia luza-roan biz!* kanpainaren baitan. Logotipoa eguneratzeko eta irradi-nobela lehiaketak, mugimendu feministarekin batera autodefentsa tailerrak, Europa mailako I. irradi topaketak... asko dira hil honetan hasi eta datozen urteari begira antolatu dituzten ekimenak.

Anjel Lertxundi idazle oriotarrak jasoko du Espainiako Saiakera Saria, *Eskarmentuaren paperak* (Alberdania) lanagatik. Hainbat literatur gairen inguruan antolatutako glosak, zatiak, testu laburrak, hausnarketak, haurtzaroko oroitzapenak, idazle estimatuen aipuak... bildu ditu liburu horretan. “Ez da autobiografia bat, baina badu autobiografiatik”, diote Alberdaniakoek euren webgunean: “Ez da oroitzapen liburu bat, baina asko zor dio oroi-menari. Dietario batetik hurbil dago, baina ez dago egunerokotasunaren mende. Bere buruaz ari da autore, baina ez da bere burua liburuaren xedea. Xedea da berrogei urtean jarraitu dion irakurlearekin elkarizketan sartzea”.



DANI BLANCO

Juan Zapater nafarrak zuzenduko du Bilbao Arte fundazioa, artista gazteen lana ezagutzera ematea xede duen ekimena. 1998an sortu zen fundazioa, Bilboko Udalaren kontrolpean, eta ordutik Javier Riaño izan da zuzendari karguan. Urtero hogeit bat autoreri lan egiteko toki bat ematen diete Bilbao Arteko instalazioetan, hamabi hilabetez euren proiektuak garatzeko aukera izan dezaten.

‘Beldurra’ izeneko erakusketa pedagogikoa izango da ikusgai Gasteizko Artium museoan 2011ko ekainera bitartean. Gure beldurren jatorriari eta izaerari buruzko gogoeta bultzatu nahi du erakusketak. Ignasi Aballí, Pedro G. Romero, Mayte Vieta, Charo Garai-gorta, Marina Nuñez, Elena Blasco eta Santiago Serrano artisten margolan, marrazki, eskultura eta collageak bildu dituzte bertan.

● Damian Muñoz dantzari eta koreografoak *Garan*:

«Max saria irabaztea niretzat ez zen hain garrantzitsua izan: jasotzera ere ez nintzen joan. Hainbesteko eragirik ez duten gauza horietako bat da, nahiz eta hedabideek eta gainerako pertsonak zuk baino garrantzi handiagoa ematen dioten. (...) Norvegiako Konpainia Nazionalarentzako pieza bat egin dugu. Hori bada garrantzitsua, edozein sari baino gehiago, oihartzun txikiagoa duen arren. (...) Krisia dela-eta, urte txarra izaten ari da. Arte eszenikoentzako ez da batere ona izan eta, dantzarentzat, are gutxiago».

● Isabel Herguera artista eta zinemagileak animazioaz hitz egin du *Berrian*:

«Ez da eskulana galtzen ari dena, kontakizunaren egituraren oinarriak baizik, eta zehazki animazioan mugimendua dena. Ahaztu egiten da animazioa ez dela soilik gauzak mugitzea, baizik eta gauzei izaera bat ematea, eta hartarako oso kontuan hartu behar dira naturaren legeak, fisika, abiadura, pisua... horiek denek osatzen dute ekintza. Emozioa emateko gauzak modu jakin batean mugitu behar dira, hori da animazioaren ezagutza. Horregatik diot batzuetan ofizioa ahazten dela».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarak

JON TORNER

Ezetz esaten ikasi zuen emakumea

Mari Zipriztinek ez du zorioneko galeperrik nahi.
Nunila López Salamero eta Myriam Cameros Sierra.
(Itzulpena: Itziar de Blas eta Mikel Garmendia)
Txalaparta (2009).

MARI ZIPRIZTINEK kristalezko zapatak probatu zituen. Txiki geratzen zitzaizkion, baina estutu eta estutu aritu zen, hanka sartu zuen arte... saiatzeak merezi zuen, printzearekin ezkontzera zijoan eta!

Egun batean, ordea, “aski da” oihukatu zuen. Konturatu zen printzeek ez zutela salbatuko, ezta kamioilari, disko jartzaile edota gozogileek ere. Konturatu zen zu salba zaitzakeen bakarra zu zeu zarela. Negar egin zuen, hutsik sentitu zen arte. Orain, bere barrena gauza politekin betetzea beste zereginik ez zuen. Baina lehenago printzea utzi zuen. Eta ez pentsa erraza denik. Hain da zaila, batzuetan bizpahiru printze gehiagorekin errepikatzen duzula.

Nunila López Salamero (Bartzelona, 1966) ipuin kontalariaren eta Myriam Cameros Sierra (Iruñea, 1978) ilustratzailearen *Mari Zipriztinek ez du zorioneko galeperrik nahi* liburuak ironiaz apurtzen ditu ohiko ipuinetako ohiko topikoak.

Geure buruak maitatzen eta gustuko ez ditugun gauzen aurrean “aski da!” esaten ikasteko ipuina da. Guztia ez baita sinetsarazi nahi diguten bezalakoa. Emakumeak badu aske izaterik, zer-nola-norekin egin esaten diguten eskema zorrotzetatik kanpo. “Aski da izeneko maitagarria duela 20 urte agertu zitzaidan aurreneko, nire ezkontza baino bi egun lehenago, hiru hilabeteko nengoela, eta... salbatu egin ninduen!”, dio Nunila



Lopezek liburuaren amaieran. “Orduz geroztik bakarrik eta zoriontsu (ahal denean behintzat) bizi den ama naiz. Printzeek ez naiz fio, bizitza erdia pasa dudana arren bakarren baten bila”.

Bartzelonako taberna bateko barran ezagutu zuten elkar Lopezek eta Myriam Cameros. “Zure ipuinentzako ilustrazio batzuk egingo ditut”, esan zion iruindarrak. “Guztiak esaten didate gauza bera”, erantzun zion Lopezek konbentzimendu handirik gabe. Handik gutxira, ordea, Cameros bere marrazkiak erakutsi zizkion. Buru, begi, aho handiko Mari Zipriztinek txundituta laga zuen Lopez. Berak kontatzen zituen ipuinekin bete-betean egiten zuen bat aske izateko jaioa zen figura ero hark. Haren keinuak hain ziren adierazkorrak...

“*Thelma & Louise* bezalakoa da, baina pistolarik gabe, zoragarriro liberatzailea”. Montserrat Dominguez kazetariaren hitzak dira. Mari Zipriztinek ez du pistolarik, baina haren irribarre zabalak unibertso osoa jan dezake. Interneten ere badu bere mundutxo: lacenicientaqueriacomerperdices.com ■



BILBO

Urriaren 29tik azaroaren 14ra, Areatzan

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak

PERTSONAIA- REN IZEN- ABIZENA IA-IA	↓	ESPALOIAN JARTZEN DEN HARRI-ILARA GOR	↓	ERABATEKO NAHASTE	↓	ARRAIN MOTA IBILGAILU ASTUN	↓	PERTSO- NAIAREN SORTERRIA ONESLE	↓	MUSIKA TRESNA BIHURGUNE	↓
↓		↓		↓		↓		↓		↓	
PIRATEN EDARIA ZUHAIXKA IZENA	→					NEGAR TANTA MAKO, ESEKITOKI	→				
↓					DUT, GIPUZKOAN ZEIN MATERIALEZ	↓	TRISTE HATZ ESTALKI	↓			
5 ERROMA- TAR ERARA DUDARIK GABE	→	BIZIMODU ASZETIKOA DUENA GIPUZKOAKO MENDIA	→					HARTU OINUTSIK	→		
↓		↓		ETIKARI DAGOKIONA UKITZEA, UKIPENA	→			↓		RADONA DOHAINDU	→
BARAU ZIRIKATZEA, ZIRIKALDIA	→			↓		MOTELDU, NAGITU ALFONBRA	→			↓	NAFARROAKO HARANA
↓						↓		GAS DISTIRATSUA GARRAIO- BIDE MOTA	→		↓
LORE, BOKAL BARIK APAIZ	→			NEURTU DAUKAT	→			↓		HELDU ADITZAREN INFINITIBOA ZEGOEN	→
↓			↓		LARATZEAN ZINTZILIK DAGOEN ONTZIA RENIOA	→			↓		LITROA SELENIOA
IZAERA, JITE ESANEZIN	→				↓	ERASO, OLDARTU IODOA	→			↓	
↓						↓			NEUKAN	→	

Kike Amonarizen umorea

Eki Andaluzian

Eki izeneko tolosar gazte bat Andaluzian izan da aurtengo udan. Kanpin batera heldu eta, harrerako neska sarrera-orria betetzen hasi zenean, izenaz galdetu omen zion:

- Eki.
- Nola?
- Eki!
- Eki? –neskak harrituta–. Seguru zaude? –galdetu omen zion.
- Bai, Eki.

– Pero, Eki? Zeguro? –andaluziarren gaztelania berezi horretan.

Tolosar gaztea, pazientzia gal-tzen hasita, baietz, bera Eki zela.

Azkenean komentzitu eta “Nombre” jartzen zuen lekuan haxe idatzi omen zuen neskak: X (alegia, “una equi”, andaluziarren hizkeran).

Kontua argitu zutenean ikustekoa omen zen neskaren aurpegi lotsaz gorritua!

Soluzioa


B	I	O	I																
Z	A	M	I	O	I														
K	A	M	A	L	K	O													
							G	O	I	B	E	L							
							T	A	T	O	R	I							
							K	O	A	R	N								
							T	O	I	L	D	U							
							T	A	N	E	O	N	A						
							T	A	R	T	U	H	E	L					
							I	Z	A	R	P	E	R	E	S	I			
							A	B	A	D	E	R	R	E	Z				
M	K	A	S	I	K	A	Z	I	R	R	E	K	E	T	A				
K	A	R	O	N	A		V	A	S	E	T	I	K	O					
							Z	I	U	R	E	T	A						
							B	A	R	I	K	E	T	A					
							L	R	I	K	E	T	A						
							A	B	A	D	E	R	R	E	Z				
							A	I	U	R	R	E	Z						
							K	O	N	T	A	E							



argia



www.argia.com/multimedia

*bertsio digitaletik harago
argi berri bat sarean*




Bideoak

Elkarriketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.





Diaporamak

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.





Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.




Ekitaldiak

Euskal Herriko txoko ezberdinetan emandako hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean euskaraz.



Film laburrak

Euskarazko film laburren hautaketa.



Dokumentalak

Dokumental berri bat bi astean behin. Euskaraz edo euskarazko azpitituluekin.

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

EDF, hondakin nuklearren biltegiaren prezioarekin kezkatuta



Meuse/Haute-Marneko lurpeko laborategia. Hemen egin nahi dute hondakin nuklearren biltegia.

ELECTRICITÉ DE FRANCE (EDF) enpresak hondakin nuklearrak lur azpian gordetzeko proiektuaren inguruko kezka azaldu ditu.

Hondakin erradioaktiboen kudeaketarako agentzia nazionalak, Andra-k, 15.000 milioi euroko proiektua onartu zuen biltegia eraiki ahal izateko Meuse/Haute-Marne eskualdean, baina azken urte honetan kopuru hori aldatu egin da. 2006an Frantziako Parlamentuak onartutako lege baten arabera, biltegi nuklearrek “errebertsibilitate printzipioa” bete behar dute, hau da, biltegiaren dauden hondakinek bertatik ateratzeko aukera izan behar dute.

Lege berri horrek eragin zuzena du hondakinak biltegitartzeko garaian eta batez ere, segurtasun neurriak zorrozten ditu. Horrela, La Meuseko biltegi-proiektuaren kostua 35.000 milioira igo da gutxienez, eta kostu horren %80 EDFren bizkar gainera doanez ulertzekoa da erakundeak aurkeztutako kezka. Izan ere, oso posible da behin-betiko kostua handiagoa izatea.

Ozeanoetako errolda

URRIAREN 4AN amaitu zen hamar urte iraun duen programa. 80 estatutako 2.700 zientzialarik parte hartu dute CoML (itsasoko bizidunen errolda) proiektuan. Hiru tomo handi, milaka argazki, bideo eta datu dituen datu-baseak eta 2.600 artikulua zientifikok osatzen dute proiektuaren muina.

Itsasertzeko ekosistemak, itsas hondoko iturri hidrotermalak eta mikrobioetatik baleetarainoko biodibertsitatea aztertu dituzte, euren eboluzioarekin eta dinamikarekin batera. Guztira 250.000 espezie aztertu dituzte; uste dute beste 750.000 aurkitzeke daudela oraindik.

Proiektu honi esker espezie ezezagun asko ezagun bihurtu dira; horren adibide dugu Pazko Uhartearen hegoaldean topatutako *Kiwa hirsuta* krustazeo iletsua.



Kiwa hirsuta.

Estresak ere gizendu gaitzake

Estresak gudan hainbat eragin dituela badakigu. Muturreko estresak, hau da, gerra, istripu edo heriotza baten eraginez sortutakoak, normalki gutxiago jatera eta ondorioz argaltzera garamatza, baina eguneroko estres normalak aurkako efektua eragin dezake.

<http://ttiki.com/17845> (Gaztelaniaz)

Eguzki-zelula beti berriak

Eguzki energia xurgatzeko erabiltzen diren zelulak eguzkiaren eraginez kaltetu eta aldatu egin behar izaten dira. Landa-reek, aldiz, beste estrategia bat dute eguzkiak eragindako zahartzaroari aurre egin ahal izateko, eta hori aprobetxatu nahian ari dira ikerlariak.

<http://ttiki.com/17846> (Gaztelaniaz)

Ahalik eta hozkailurik txikienaren bila

Ustez, etxean zenbat eta hozkailu handiagoa izan hobeto. Hala ere, Britainia Handiko ikerlari talde batek dio nahi adina txiki eraiki daitezkeela hozkailuak, eta zenbat eta txikiagoak izan orduan eta errazagoa dela zero absolutura (0 gradu Kelvin, edo $-273,15^{\circ}\text{C}$) hurbiltzea. Etorkizunean erabilpen garrantzitsuak izan ditzakete hozkailu txikiak.

<http://ttiki.com/17847> (Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Makulu

ADARJOTZAILEARI HARPA ERAKUSTEN DION lagunak, Bengalako banyaz, *Ficus benghalensis*, ari ginela, galdera luzatu dit: nola arraio liteke zuhaitz bakar batek 20.000 metro koadro itzalpetzea? Hasteko, galanta izanda. Eta segidan, sekula bukatzen ez den hazkundea eraikiz. Zuhaitzaren trikimailua: adarrak zabaldu eta tarteka goitik behera sustraiak luzatu, lurrera iristean itsatsi eta adarra areago zabaltzeko makulu izango diren sustraiak. Sustrai makulu hauei zutabe sustraiak deitzen zaie. Zutabeak adarra bermatzeaz gain jaki berriz hornituko du, adarra nahi ahala hazi eta luzatuko da eta zuhaitzak ikaragarritzko zabalera hartuko du.

Sasoi honetan tankeratsu berrak ikusten ditut nik beste arbola batzuk, baita hemengo pikondoak ere, *Ficus carica*, baina batez ere sagarrondoak, *Malus x domestica*. Aurtengoa bezalako sagar urteetan sagarrondoaren adarrek izugarritzko sagar-karga hartzen dute eta nola-hala ez balitzaie lagunduko eraitsi eta krak, zartatuko lirake. Belauneko katilua hautsia duenari bezala, sagarrondo zamatuari makuluak eman behar. Txardangoak jartzen zaizkio adarrari, hautsi gabe eutsi eta gero azpian sagarra biltzeko modua izateko. Eusteko soilik izaki, sagarrondoaren adarra ez da askoz gehiago zabalduko, txardangotik elikatuko balitz beste upeleko sagardoa litzateke. Gaztaina (*Castanea sativa*), haltza (*Alnus glutinosa*), hurritza (*Corylus avellana*), eskura dagoenarekin egiten da txardangoa, baina adar bat erditu eta bitan banatzen den urkila berezkoa behar du. Kanaberak, adibi-



VIRGINIA TABUENCA-CC BY SA

Banbuz egindako aldamioa, Txinan.

dez, ez du balio makulutarako. Dena delakoaren espezieko kanabera izanagatik –kanabera bera, *Arundo donax*, edo banbuak, *Bambusa* sp. etab.– ez du txardangorik izango eta ezin euste lanerako erabili. Beste lan batzuetarako, aldiz, paregabea da kanabera. Esate baterako, banya erraldoiaren lurralde haietan aldamio egituretarako darabilte. 40 solairuko etxeei edo forma harrigarriei eusteko bikainak.



ASTER GALDÓS

Narra

Iraileko lanetarako aproposa da narra. Edozein lera edo gurdi sortu aurretik makina bat narra ibiliko zen gure mendietan behera. Ira edo garoen lanak egiteko sasoi honetan hona narra, Telleriarte aldekoa argazkikoa. Adar nagusi baten gainean, garraiatu behar den belar, adar, garo, inaurkin edo dena delakoa jarri eta azpiko adar nagusiari tiraka eramateko garaitako egitura. Edozer gauza herrestan eramateari narraka, narraz... esaten zaio.


Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Habbakuk, proiektu izoztua



WWW.NEOTEO.COM



WWW.PHOTOBUCKET.COM

Ezkerrean, izotzeko ontzia sortzeko bidean, Kanadako Patricia aintziran egin zuten prototipoa. Alboan, izotzeko itsasontzi erraldoiaren planoak; Nimitz hegazkin-ontziak eta Yamato korazatuak ñimiñoak dirudite haren ondoan.

LONDRES, 1942. Bigarren Mundu Gerra betean, alemaniarren nagusitasuna, japoniarren mehatxuak areagotua, gero eta nabarmenagoa zen Ozeano Atlantikoan. Nazien teknologia aurreratuaren aurkia borrokatu behar ziren aliatuak, eta Winston Churchill edozein proposamen entzuteko prest zegoen. Geoffrey Pykeren proiektuaren berri izan zuenean, berau gauzatzeko laguntza osoa ematea erabaki zuen. Inoizko itsasontzirik handiena eraikiko zuten, izotzez! Makina berriak eraikitzeak altzairurik ia ez zen geratzen Europa osoan, baina izotza nonahi topa daiteke eta flotatu egiten du.

Hala, Habbakuk proiektua abian jarri zuten. Baina izotzaren propietateak hobetu behar zituzten, gogorragoa eta konpontzen errazagoa izan behar zuen etsaien erasoei aurre egiteko. Izotza egur orez nahasi zuten eta material berriari Pykrete esan zioten proiektuaren sortzailearen omenez. Baina izotzak, mugitzean, fluxu plastikoa deritzon fenomenoaren eragiten du eta horrek ontzia hondoratuko zukeen. Hori saihesteko materialak -16 gra-

dutan egon behar zuen eta horrek hozte sistema konplexua eskatzen zuen.

Oztopoak oztopo, Kanadako Patricia lakuan 9x18 metroko prototipoa eraiki zuten. Eraitza positiboa izan zen. Kanadako gobernua izotzeko hegazkin-ontzia 1944an prest izango zela adierazi zuen. Baina benetako ontzia 610 metro izango zen luze, kroskoak hamabi metroko lodiera izango zuen, 300.000 tona egur ore, 25.000 tona zuntz isolatzaile, 35.000 tona egur eta 10.000 tona altzairu beharko ziren hura egiteko... Kostuak izugarri egin zuen gora eta, gainera, fluxu plastikoak eta beste arazo batzuek ez zuten oraindik konponbiderik.

Pyke berak sortutako proiektutik egotzi zuten eta handik gutxira bere buruaz beste egin zuen. 1943an proiektua garestiegia eta bideraezina zela ondorioztatu zuten ingeles armadako arduradunek eta proiektua bertan behera geratu zen. Patricia aintziran utzitako prototipoak proiektuak baino gehiago iraun zuen, baita gerrak berak baino gehiago ere; hiru urte behar izan zituen erabat urtzeko.

Arrastoak

Flandestar urrezko aroa Bilbon

URREZKO AROA. HOLANDAKO ETA FLANDESEKO PINTURA izeneko erakusketa izngo da Bilboko Guggenheim museoan urtarrilaren 23ra bitartean. Frankfurteko Städel Museumen bildumako 130 lan aukeratu dituzte, XVII. mendean Holandako nahiz Flandeseko maisuek eginak, hala nola

Vermeer-ek, Hals-ek, edo Rembrandt-ek (eskuinean, lan horietako bat, Jan Vermeer van Delften *Geografoa*, 1669). XVII. mendean itsas merkataritzaren loraldiaren ondorioz, burgesiaren gustu eta balio berriak ezarri ziren eta horiek agerian utzi zituzten margolari horiek.



JAN VERMEER

Hondakinak Hernanin

Atez ateko bilketa: alternatiba *versus* galbidea

URKO APAOLAZA

Argazkiak: Dani Blanco

Maiatzaren 9an hasi ziren hondakinak atez ate biltzen Hernanin, %80ko birziklapena lortzeko helburuarekin. Usurbilen eta Oiartzunen ere biltzen dira hondakinak modu horretan. Atez atekoak eta erraustegiek bultzaturik, Euskal Herrian azkar ari da zabaltzen hondakinen inguruko eztabaida. Marian Beitialarrangoitia Hernaniko alkatea eta Andoni Amonarraiz zinegotzia, aurrez aurre jarri ditugu, sistema horren inguruko begirada praktikoa eman dezaten.



Andoni Amonarraiz (EAJ) atez atekoaren kontra dago; Marian Beitialarrangoitia (ezker abertzalea) alde. Parez pare jarri ditugu haien iritzia jakiteko.

Zein emaitza izan du atez ateko bilketak Hernanin, hondakinen sorreran eta birziklapenean, eta zer balorazio egiten duzue emaitza horiez?

Marian Beitialarrangoitia: Tes-tuingurua kontuan eduki behar da. Biztanle bakoitzeko hondakin kilo kopurua jaisten ari da, eta atez atekoak joera horretan jarri da martxan. Dena den, atez atekoak denbora oso laburrean birziklapena %83ra igotzea lortu du, kalitate oso oneko 115.000 kilo organiko jasotzen dira,

eta horrekin batera erreusaren jait-siera handia izan da, hilean 400.000 kilotatik 78.000 kilotara pasa da. Hori erreala da, datuek abalatzten dute. Zeren eta askotan, sistema honen kontra daudenek *zabor turis-moa* aipatzen dute, baina hartzen baditugu aldameneko herrietako datuak ezin daiteke esan hauetan zabor kopurua igo denik. Gainera,

300.000 kiloz ari gara, hori zabor-rez betetako kamoi asko dira.

Andoni Amonarraiz: Ni sistema honen kontra nago, eta hilabeteak aurrera joan ahala berretsi egiten dut. Erreusaren kontuan, zalan-tza harri-garri bat dut: nola da posible Usurbilek, 6.000 biztanlerekin, 67 tona sortzea, eta aldiz, 20.000 biztanle dituen Hernanik 69 tona erreus sortzea?



Eta bestalde, hondakinek, osotara, modu exajeratuan egin dute behera: 2009ko ekainean 672 tona ziren eta 2010eko ekainean, berriz, 434 tona izan dira. Hori ez da jaitsiera, hori da zaborra desagertu egin dela.

Eta zein da zure hipotesia, Andoni?

A.A.: Hondakinen jaitsiera gobernuen eta legeen esku ere badago, enpresek bilgarriak murriztu ditzaten eta abar. Baina horrelako legerik ez da eman, eta produkzio sistemak bera izaten jarraitzen du, lehenago ontzitan bildutako xerrak erosten zituen herritarrak, orain ere hala egiten du. Nik uste dut Hernanik hondakin kopuru bera sortzen jarraitzen duela, eta %45,4 jaitsi bada, kopuru hori kalean dago edo beste herrietara joan da. Bestalde, Marianek dio organikoaren kalitatea oso ona dela. Nik prentsan irakurri dudanez [Gipuzkoako Hondakinen] Partzuergoak San Marko mankomunitateari abisua pasa dio Lapatzera iristen den organikoa kalitate txarrekoa delako.

M.B.: Niri ez didate prentsako artikuluek balio, paper ofizialek baizik. Partzuergoak azkeneko karakterizazioan dio kalitatea %98,4koa dela. Pentsa zein datu ona ematen duen Partzuergoak, badakigunean atez atekoari ahalik eta oztopo gehien jartzen ari dela, karakterizazioak egiten ari direnean gu bertan egote-

rik izan gabe, eta Lapatzera iritsi eta hurrengo egunean egiten ari direnean, horrek ekar dezakeen galera-ekin. Eta hala ere, Partzuergoak datu hori eman du.

Atez atekoak egiten duena da norbera bere hondakinez ardurtzea eta hondakinak murrizteko arrazoietako bat da gremioek ezin dutela jada beren zaborra hiri hondakinentzako kontenedoreetan kamuflatu. Eta legez hitz egin duzu: lehenengo legeak dio organiko guztia bereizita jaso behar dugula, gaur egun atez atekoak baino ez du hori posible egiten.

"Produkzio sistema ez da aldatu eta Hernanik hondakin kopuru bera sortzen du"

A. AMONARRAIZ

A.A.: Eta bosgarren kontenedoreak.

M.B.: Bosgarren kontenedoreak ez du hori ahalbidetzen, boluntarioa delako, ez derrigorrezkoa.

A.A.: Baina nik ditudan datuen arabera atez atekoarekin ere ez da dena jasotzen, 366.00 kilo desagertu dira eta horren zati bat organikoa da.

M.B.: Desagertu direla frogatu egin behar da, eta bestela, ez dira sortu.

Autokonposta egiten duten herritarrak askoz gehiago dira orain.

M.B.: Ehundik gora izatetik ia zazpiehun izatera pasa dira. Sortu den eztabaidaren ondorioz herritarra kontzienteago da bere jarduna garrantzitsua izan litekeela organikoa zirkuitutik ateratzeko.

A.A.: Atez atekoak egin du Hernanin hondakinez asko hitz egitea. Jendeak ikusi du torlojua gehiago estutu behar dela kontenedore berdera joaten den horrekin, eta bi bilketa sistemen dilemma sortu da: atez atekoa edo bosgarren kontenedorea. Egia da autokonposta egitea erabaki duten hernaniarren kopurua handitu egin dela, beti dago hasierako koska bat, ikusiko dugu maila horretan mantentzen den, ederra izango da mantentzen bada.

Osasunari eta ingurumenari dagokionez, zein eragin eduki dezake hondakinen kudeaketak? Atez atekoa errausketaren alternatiba izateko ezarri da...

M.B.: Atez atekoak osasuna jartzen du beste edozeren gainetik. Etorkizuna hondakin gutxiago sortzetik igaro behar da, *zero zabor* lelo sako-nera joateko. Inork ez du nahi erraustegi kutsagarriarik aldamenean; jar daitezke mila txosten mahai gainean, baina dioxina eta furanoen isurtzaile nagusietakoak izaten jarraitzen dute. Eta ni ez nago prest hernaniarren osasuna, negozio egitea bilatzen duen *lobby* intzineratzaile baten eskutan uzteko. Atez atekoak, lorpen ugari baditu ere, birziklatu ezin den zati bat uzten du, baina erraustegiak ere bai. Ezberdintasuna da atez atekoaren erreusa inerteza dela eta erraustegiak, aldiz, zaborte-ki kutsagarri bat behar duela erraustsak eta eskoriak biltzeko. Atez atekoa Gipuzkoa osoan ezarriko balitz erraustegiak ez luke izango nondik jan, horregatik ari dira erraustegiaren alde daudenak bosgarren kontenedorearen alde egiten, onenean %35eko birziklapen tasa ematen duelako. Hernanik, bera baino handiagoak diren herriek hilabeteen jasotako organiko kopuru bera jasotzen du egun bakarrean. Eta bestalde, kaleko kontenedoreak usain eta osasunaren kalterako gune dira, ordutegiak errespetatzen ez direlako.

A.A.: Niretzako ez da batere osasungarria hondakinak hainbat egunez izozkailuan sartzea, edo langileek hondakinak eskuz jasotzea. Gainera, transferentzi-gune bat jarri da martxan eta bertako lixibiatuak euria jasotzeko kanalizaziotik bideratu dira, argazkiak daude. Nik uste dut ilegala dela eta Eusko Jaurlaritzak ez du horren berri.

Eta erraustegiaren ildotik: ez dut ezagutzen, gaur gaurkoz, erreusarekin amaitzeko erraustegia ez beste sistemarik. Ez dugu guk soilik esaten, Frantzia, Alemanian, Japonen, Norvegia... ere bai. Elementu kutsagarria dela ere ez da egia; ekologisten jomuga nagusi izan dira erraustegiak eta horregatik lege murriztaileak aplikatu dizkiote CO₂ isurketei, zementu fabrikei baino hamar aldiz gutxiago isurtzea exigitzen diete. Nik ez dut esaten isurtzen ez dutenik, baina bai diot autoek ere isurtzen dutela, eta horregatik ez diogu autoan ibiltzeari uzten.

M.B.: Herrien zerrendak denok jar ditzakegu. Nik aipatu dezaket herri bat bigarren erraustegia jarri baino lehen *zero zabor* programa jarri duena, San Frantziskotik hasita. Gauza ez da adibideak jartzea, gauza da, kutsagarria ez den alternatiba baldin badugu, horretara jotzea.

Ekonomikoki jasangarria al da zabor bilketa hau?

A.A.: Nik uste dut hondamendia dela. Aurreko sistema mantentzea eta bosgarren kontenedorea ezartzea 1.660.000 euro kostako litzateke urtean. Atez atekoa martxan jarri denetik irailaren 13ra arte –Udaleko kontu-hartzailearen datuak dira–, 1.354.000 euro gastatu dira. Ez dira kontabilizatu funtzionarien ordu extrak, ezta ibilgailuen erabilera gastuak ere; falta dira materia organikoa tratatzeko gastuak; San Markori egin beharreko ekarpena ez da kalkulatu... Eta hala ere, non dauden ez dakigun 300.000 kilo zabor falta dira.

M.B.: Sistema bat ezartzen denean erantsitako inbertsio gastu batzuk daude, epe batean amortizatu beharrekoak. Atez atekoaren bideragarritasuna ez du sistema ezartzeko gutxiago edo gehiago gastatzeak neurtzen, baizik eta behin sistema finkatuta, honek duen urteroko



ohiko gastuek. Hernani ez dago fase horretan. Nik beti defendatu izan dut atez atekoa beste sistemaren tankerakoa dela gastu aldetik, baina garestiagoa izango balitz ere babesten segituko nuke, uste baitut osasunak ez duela preziorik.

Hala ere, hemen bi gastu mota daude: biltzeagatik sortzen dena eta tratatzeagatik sortutakoa. Atez atekoak bilketan gastu handiagoa du, noski, ez da gauza bera 7.000 zintzilikairu biltzea edo 50 kontenedore, baina lanpostu gehiago sortzen du. Tratamenduari dagokionez, erreusa da zati garestiena, eta ez dauka zerikusirik orain ordaitzen dugunak lehen ordaintzen genuenarekin. Eta bestalde, nola ulertzen da edozein enpresa pribatuk tona bat materia

organiko 60 eurotan konpostatzea eta Aldundiak, aldiz, 100 kobratzea? Tamalez gaia politizatu egin da eta azpian prezioak merkatzeko interes falta dago, atez atekoaren onurak ageriago geratuko liratekeelako. Hernaniko Udalak diru-sarrera gehiago izatea lortu du ontziak, papera eta beira birziklatzeagatik. Katalunian herri bakarra dago atez atekoa kendu duena –erabaki politiko batengatik–, eta denok dakigu katalanek *la pela* nola kontrolatzen duten. Egia da hasierako kalkuluak ez zeudela guztiz egokituta, baina sistema berria da eta ni harro nago aurrenekoak izateaz.

A.A.: Batetik, San Marko mankomunitatea prezio hori ari da ordaintzen organikoa konpostatzeagatik Par-tzuergoarekin hitzarmen hau [eskue-

SOLOZABAL
Eskura ezazu teorikoa 5 egunetan
edozein gidabaimenerako

■ IKASTARO INTENTSIBOAK
■ CAP IKASTAROAK
■ ADR IKASTAROAK
■ GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390

www.solozabalautoeskolak.es

Eraikuntzarako materiala

GALPARSORO

Salmenta:

axulejo eta gresa
komunak • manparak • komuneko altzariak
obra hondakinen bilketa

☎ 943 300 145

Faxa: 943 300 012

Borda Berri industrialdea, 5. pab.
Andoain (Gipuzkoa)

Zaborren kudeaketaren eskumena, hitz bitan



Andoni Amonarraiz:

"San Markoren esku dago"

Eskumena udalena zen, baina San Marko eratu zenean, eta Hernanik beranduago mankomunitatera sartzea erabaki zenean, erabaki zuen eskumena honi uztea. San Markoko estatutuen laugarren kapituluak esaten du hondakinen irtenbide integrala mankomunitaarena dela.

Marian Beitialarrangoitia:

"Eskumena udalena da"

Hondakinen eskumena beti izan da udalena, mankomunitateak existitu aurretik ere. Beste gauza bat da udal batzuk aliatzea gauzak egiteko. Baina eskumenak udalarena izaten jarraitzen du eta nahi duenean berreskuratu dezake. Batzuek udalak eskumenez ustu nahi dituzte, nahi dutena egiteko.



tan du] sinatu ez duelako. Honekin %25 merkeago da, eta guk ez dugu sinatu. Bestetik, orain ematen du atez atekoaren balioa lanpostuak sortzea dela. Bada, beste modu bat lanpostuak sortzeko ordenagailuak kendu eta eskuz idaztea da. Jakin nahiko nuke hernaniar guztiek zaborra kalean pilatuta utziko balute, zenbat baliabide mekaniko eta zenbat giza-baliabide beharko lirartekeen guztia esandako ordutegian biltzeko. Baina ez baldin bada hasieran proposatutako atez atekoa betetzen, eta aldiz, bilketa ordutegiak zabalgoak diren beste atez ateko sistema bat ezartzen bada, kostua ezberdina da.

M.B.: Sistema ez da aldatu. Beste gauza bat da kalkulua ez egotea guztiz egokiturik. Badaude herriak urte osoa behar izan dutenak bilketa denbora optimizatzeko. Dena den, argitu nahi nuke %25eko kontu hori. Lehenik, ez da egia. Partzuergoak, hasierako hilabeteetan ez zuen %25 merkeago kobratu, baina orain merkeago kobratzen ari da badakielako egiten ari zena ilegala zela. Eta bigarrenik, San Markok ez zuen hitzarmena sinatu, ez organikoa %25 merkeago konpostatzea nahi ez zuelako, baizik eta eskuak lotzen zizkiolako eta Partzuergoa pasatzen zelako kontrol guztia izatera, eta horrek monopolioa dirudi.

Eta herritarrari nola eragiten dio kudeaketa horrek zabor tasan?

M.B.: Guk esana dugu herritarrak zabor tasa handia ordainduta ere, ez duela kutsatzeko eskubiderik. Orain arte, zabor tasaren zati bat administrazioak ordaindu du; zaila litzateke epe motzean herritarrari tasa hori jaistea, lehenik lortu beharko genukeelako Udalak ordaintzen duen

zattia murrizten joatea. Bestalde, gaur egun tasa ezberdinak daude: autokonposta egiten dutenek, edo landaguneetan hondakinak bilketa gunera eraman behar dituztenek, gutxiago ordaintzen dute, esfortzu handiagoa egiten dutelako.

A.A.: Ideala litzateke herritarrek ordaindu ahal izatea Udalak eskaintzen dituen zerbitzu guztiak. Baina nik uste ez garela inoiz horretara iritsiko, erreusa tratatzea garestia da, herritarrak harrituko lirarteke kostua jakingo balute.

M.B.: Esan duzu erreusa tratatzea garestia dela. Are garestiago izango da errauste sistemarekin...

"Gauza ez da adibideak jartzea, gauza da kutsagarria ez den alternatiba baldin badugu, horretara jotzea"

M. BEITIALARRANGOITIA

A.A.: Hobe da dirua tratamendu sistema horrekin gastatzea erreusa zabortegetian uztera itzultzea baino. Bartzelonan izan ginenean, erreusari "ia inerte" deitzen zaioten, eta *pack*-ak eginez harrobietan biltzea pentsatzen zuten... Guk gurutztea egiten genuen, hori tratatu egin behar da.

M.B.: Kentzen badiogu organiko gehiena eta benetan jartzen baditugu I+G+B errekurtsuak pixoihalak autokonpostagarri izateko, ez didazu esango ezin dugula %20ko erreusa izatetik %10 izatera pasa? Ez naiz asmatzen ari, munduan egiten ari dira. Inertizatu eta askoz leku txikiagotan bildu ahal izango litzateke.

A.A.: Zuk etorkizunaz hitz egiten didazu. Denok gaude ados erreusak

ahalik eta txikiena izan behar duela, eta nik horretarako kontzientzia-zioa eta bosgarren kontenedorea proposatzen ditut. Gaur eta hemen bizi diren herritarrei bizitza errazteaz ari naiz, eta ez haiek kaltetzeaz etorkizuneko balizko osasun arazoen kontura. Oraingo bitartekoak erabili behar ditugu, eta horiek hobetu idealera iritsi arte, baina bitartean ezin dugu hibernatzen egon, bizi egin behar dugu.

Hernaniarren eguneroko bizitza nola aldatu du atez atekoak?

M.B.: Ohitura aldaketa txiki bat da, baina hain da txikia, jendea segituan egokitu dela. Sortutako krispazioaren aurrean, herritarrak konturatu dira ez dela hain konplikatu. Niri jendeak kalean esan izan dit errazagoa dela, adinekoentzat hurbilagoa dela... Egongo da gauzak ongi egin nahi ez dituenik, baina atez atekoaren kontra daudenek ezin dute hori sustatu. Horrek esan nahi bailuke, herriarentzat ezartzen diren arauak, norbere gustuaren arabera, errespetatu daitezkeela edo ez.

A.A.: Nik uste dut herritarren zati handi bat desobedientzia zibila egiten ari dela, eta oso atsekabetuta daudela. Zuk errealitate bat ezagutzen duzu eta nik beste bat. Etxean zaborra eduki behar izatea nahi duzun denbora baino gehiagoz...

M.B.: Nire etxean ez da horrela: hiru egun dauzkat organikorako, bi plastikoentzako... Nik erreusa hilean behin ateratzen dut, ez dudalako obsesiorik nik sortu dudan hori etxetik ateratzeko.

A.A.: Nik, eskuak zikinak baditut, garbitu egiten ditut. Eta zikinkeria nigandik gertu ahalik eta gutxien edukitzen saiatzen naiz. ■

galdera-erantzun bidezko mahai-jolasa

badakrit

35 euro

ARGIAren harpidedunek
%15eko deskontua

FORMATU BERRIA

Ludi**toys** 

Eskaerak: 943 36 86 61
info@luditoys.com
www.luditoys.com



 **argia**
JOLASAK

zorri urtetik gorakoentzat
8+

Xan Errotabehere, ipuin kontalaria

«Istoriaoa geure sentitzeko, mintzairak ere gurea behar du izan»

Kontatze-aditze hutsa baino, istorioak harekin partekatzea bilatzen du Xan Errotabeherek. Hendaiaiko mediatekan harrapatu genuen. Poto batetik barraskiloa bizirik atera, lurrean laga eta harena eginez sorgindu zituen bertaratutako haurrak. Baita haien gurasoak ere.

GARBINE UBEDA GOIKOETXEA

Duela lau zapabost urte hasi zinen ipuin kontaketan, irakaskuntzan erretrera hartu ondoren. Nolatan?

Hazpainen irakasle nintzelarik, euskara eta ingelesa erakustea zen nire lana. Biziki zaila izan zen has tapena, euskararen bederen ez baikenuen programarik. Antzerkiak egitea zen programa. Pittaka-pittaka antzerkiak sortzeko eta emateko ohitura hartu genuen. Eta erran behar da sekulako bultzada ematen ziela haurrei. Beren burua besteen aurrean baloratzen zuten euskaraz, eta biziki baikorra izan zen hori.

Erretreta hartu nuelarik, galdatu zidan guraso batek –kontalaria da bera– ea zerbait egiten ahal nuen, eskaera handia zegoela eta jendea behar zela. Horrelaxe hasi nintzen eta gustatu egin zitzaidan.

Autodidakta zara?

Koldo Ameztorekin aritu nintzen pixka bat, gero hainbat taldetan. Hegoaldean ere izan naiz, entzuten eta kontatzen. Esaterako, Getxon, Iparraldearen Astea deiturikoan. Han haur handienekin aritu izan naiz, eta helduen istorioak kontatu dizkiet... Iparraldean ipuinak ttikientzat dira, ez dute pentsatzen helduentzat ere badela zer kontatua,

badirela sekulako istorioak. Bertso laritzak itzal luzeagoa du, ospe handiagoa, eta beste jardunak itzaltzen ditu, ipuingintza ere bai.

Zer da zuretzat zailena?

Haur ttikienekin aritzea. Psikologia aldetik ez ditut sobera ezagutzen, mugitzen dira, inoiz ez dakizu non diren, gaiak hautatzeko ere zalan-tza gehiago izaten da. Halaz ere egiten dut eta beti ikasten da zerbait. Non den galdera, hara joaten naiz.

«Iparraldean ipuinak ttikientzat dira, ez dute pentsatzen helduentzat ere badela zer kontatua, badirela sekulako istorioak. Bertso laritzak itzal luzeagoa du, ospe handiagoa, eta beste jardunak itzaltzen ditu»

Denetarik bada zure erreperatorioan: ipuin herrikoiak, egile ezagunenak eta zuk asmatutakoak.

Sekula ez da erraten ahal ipuin osoa zeurea denik, beti bada besteren

bati hartutakoa: hastapena, halako erreferentzia...

Idatzi ere egingo dituzu.

Hala da. Badut lagun bat ipuinak sekula idazten ez dituen, baina ni irakaslea izan naiz eta horren beharra dut. Hori da nire akatsa. Istoria idatzi egin behar dut, ondo finantzeko, edo seriotasuna har dezan... Gero, istorioa dudalarik, gertatzen da istorio horren hamar aldaki ere pila daitezkeela. Udan, esaterako, helduekin aritu naiz baina haurrentzat ez. Tarte horretan, haurrentzako ipuinak ahan-tzi ditut pixka bat, eta idatzi behar izan ditut berriro, zabar eta laster, xatar batean nahi baduzu, baina idatziz eman. Hori da nire modua.

Baina ez dituzu argitaratzen.

Ez. *Herria* aldizkarian istorioak idazten ditut tarteka. Joanes Bordazar ezizenez, seiko taldetxoa aritzen gara. Helduentzako istorioak dira, nagusiki Jainkoa, jendea eta bizia gai hartuta, morala ere badutenak. Nik ez dut morala besterik gabe ateratzea maite. Nahiago dut exenplu baten bidez eman, edo elkarrizketa moduan, nahiago dut nonbait kokatu, sukaldean, zaharren etxean...



Ipuinak modu interaktiboan ematen saiatzen da Xan Errotabehere. Antzerkian ariko balira bezala, erranaldi txikiak ematen dizkie haurrei jokoan sartzeko.

Memoria onekoa zara?

Gurea ez da memoria kontua, filmaren antza du, gauza batek bestea ekartzen dizu. Ez dut sekula buruz egiten. Lehenik idatzi egiten dut, aurretik esan bezala, oroitarazteko, baina gero ahanzi egiten duzu formula. Baduzu haria, eta hari segitzen diozu. Adibidez, zure etxetik lantokirako bidea ongi ezagutuko duzu, eta ohean etzana zarelarik, begiak itxita, bide hori berregiteko gauza zara, toki batera heltzen zarelarik, badakizu hurrena zer datorren. Istorioetan horixe bera gertatzen da.

Hiztegia, esamoldeak, euskara maila bera, heldu zaren tokira egokitzen duzu, bertaratu zaizun publikora, eta askotan martxan, ikusi dudanez. Ongi ezagutzen duzu Euskal Herria.

Ez da sekula ondo ezagutzen. Batuak laguntzen du. Kostaldean, adibidez, bost axola zaie molde bat edo beste. Baina Donapaleun edo Baigorri ez dute sobera maite batua. Han kasu handiagoa ematen diote hizkerari, euskalkiari, beren esamoldeei, eta egia da istorioa egokitze, geurea bezala sentitzeko, mintzairak ere gurea behar duela izan.

Hirian euskara karrikakoa da, oraingoa, nahasia. Nik normalean

horixe daukat, batuak eman diguna, mestizazio hori ona atzematen dut, denak aberasten garela iruditzen zait. Baina denak ez dira iritzi berekoak, “batua delako hori arrotza da, espainola da”, esango dizute. Baina gero eta guttiago, egia esan. Kazetaritzak asko laguntzen du, telebistak, irratia... ohitura sortzen da eta

«Sekula ez da erraten ahal ipuin osoa zeurea denik, beti bada besteren bati hartutakoa: hastapena, halako erreferentzia...»

ikasi egiten da, bereziki hiztegia. Aditza da beharbada sartzen ez dena.

Adinaren arabera ere moldatzen dituzu istorioak.

Sailkapena nahiko ongi egin dut, baina hala ere gertatzen dira ezusteak. Batzuetan gai bat galdatzen digute, adibidez udazkena, emanaldi trinkoa, eta horretara egokitzen duzu zerrenda. Baina beharbada istorioen bat ez da sartzen, dena delakoagatik... Oso sentsazio txarra da, biziki mingarria: huts egitea eta

euskaraz! Frantsesez aritzen naizenean ere gertatzen zait, baina ez dut minik hartzen, berdin zait, ofizioaren partetzat hartzen dut. Baina euskaraz, oi-oi.

Zer egiten da horrelakoetan?

Itzulipurdi bat egin eta ekitaldia moztu. Batzuetan saiatzen zara, errekupeatu nahi dituzu, baina alferrik da, hobe da bukatzea. Ez da biziki usu gertatzen, hala ere.

Haurrak kontakizunaren parte bihurtzen dituzu.

Antzerki moduan egiten dut. Galderak egiten dizkiet, edo erranaldi txikiak eman. Euskara bultzatzeko eta praktikatzeko biziki ona da. Haur bat jokoan sartzen bada, besteak ere sartzen dira eta euskaraz egitea oso ongi da.

Eskola elebidunetan aritzen zara askotan. Nola ikusten dituzu bertako haurrak, haien mintzaira?

Uste dut nahikaria badela, gurasoek eta haur gehienek ikasi nahi dute, baina gero ordutegia biziki txikia da eta eskolatik kanpo ez da praktikatzen. Ez dut uste egoera onean denik.

Ez ditugu bide onak hartzen. Euskara ikastekotan eta erabiltzekotan, ikastoletan bezala behar litzateke. Gero esango dute lau urte eman ostean ez dutela deus handirik ikasi. Eta betikoa, etxean hitzik egiten ez dutenez, hau eta beste antolatu behar litzatekeela esango dute, euskara kanpoan bultzatu beharko litzatekeela. Ikastoletakoek ere berdin.

Baina ipuinaldiak edo bestelako ekintzak antolatzen direlarik, mediateketan-eta, jendea ez da mugitzen, edo oso gutti.

Horma-irudiak ere baliatzen dituzu, eta beste hainbat elementu: benetako barraskiloak, gaztainak, garia...

Hizkuntza maila oso apala denean, beharrezkoak dira marrazkiak. Hitz egingo ez badute ere, beti ulertuko baitute zerbait. Nolanahi ere, ipuinak interaktibo egiten saiatzen gara. ■


'Soziolinguistika Eskuliburua'

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRAK, 2004an sortu zenetik, erronka nagusietakoa izan du eskuliburua argitaratzea. Orain salgai dago *Soziolinguistika Eskuliburua* izeneko lan mardula. Soziolinguistikaren nazioarteko oinarritzko teoriak eta ikerketak eta horiek Euskal Herrian izan duten garapena jaso dituzte lanean, eta baita soziolinguistikaren oinarritzko kontzeptuen definizioak ere. 381 orriko eskuliburua euskararen normalizazioan lanean ari direnei zuzendutako tresna da. Eskuliburuan Klusterraren inguruan bildutako 30 aditu baino gehiago

aritu dira. Koordinatzailea Soziolinguistika Klusterreko Oihana Lujanbio izan da eta lantaldea ondokoek osatu dute: Paul Bilbao, Battittu Coyos, Jone M. Hernández, Lionel Joly, Imanol Larrea, Loren V. Martínez Bermúdez, Belen Uranga eta Arkaitz Zarraga.

Asierren bideo grabazioak euskara praktikatzeko

KARRAJUA.ORG-K lagundu digu Asierrengana iristen. Bizkaitar gazte hau euskara ikasten hasi da euskaltegian eta erabaki du tartean behin bideoak grabatzea bera hizlari dela. Asmoa euskara ikasteko baliabideen berri



ematea da, baina batik bat berak euskaraz praktikatzea. Ez da zero mailakoa, badaki hitz egiten, baina aditzekin larri dabil. Ariketa bikaina da mutil honena, lotsa bazterrean utzi eta pantailaren, eta gu denon, aurrean euskaraz ari da. Dagoeneko baditu jarraitzaileak, bat baino gehiago Asier bezala euskaltegian hasi berri direnak. Nahiz eta pasarte txarrenak moztu egiten dituen natural ageri da bizkaitarra, edozein hizkuntza ikasten dugunean ageri garen moduan, ahaleginean. Bideoa ikusteko: www.youtube.com/user/VlogaEuskaraz



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Bihartean-etik... Bosthartean-era

Joan den astean Euskal Herriarentzako garrantzitsua eta oso positiboa den albiste sozio-ekonomiko eta politikoa izan dugu: Bihartean jaio da. Gipuzkoa eta Baionako merkatal ganberak –azkenekoak Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako enpresak biltzen ditu– batuko dituen erakundea da, Gipuzkoa eta Ipar Euskal Herria garatzeko asmoz sortua, besteak beste, merkataritza, zerbitzuak, industria, formazioa eta berrikuntza arloetan. Helburu ekonomikoak dituen “mugaz haraindiko” lehen europar egitura da eta Europar Batasuneko finantzaketa jaso du. Organismo berri horren sorrera lau herrialdeetako enpresen artean egindako ikerketaren ondorioa da. Horretarako, 1.400 enpresei inkesta bana egin zitzaion: 900 Gipuzkoakoak eta 400 Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoakoak. Inkesta horietatik ondorioztatzen denez, enpresen %42ak harremanak ditu aldameneko herrialdearekin eta Gipuzkoako enpresen %34ak bere produktuak Ipar Euskal Herrian saltzen ditu. Horrelako inkesta bat Bizkaia, Araba eta Nafarroako gainerako enpresen artean eginez gero, emaitza nahiko antzekoak izango litzuke.

Ongi etorria izan dadila Bihartean. Lehenengo pausoa izango ahal da Euskal Herria instituzionalki, sozio-ekonomikoki eta politikoki hezurramitzeko, eta modu horretan, arrazoi guztiz politikoengatik Espainiako eta Frantziako Estatuak inposaturiko lurralde banaketa ezabatzeko. Nahiz eta enpresa harremana, hurbiltasunagatik, estuagoa izan Gipuzkoa eta Ipar Euskal Herriaren artean, beste euskal herrialdeek ere (Bizkaia, Araba eta Nafarroa) merkatal erlazio garrantzitsua dute Iparraldearekin. Bihartean sortzea beharrezkoa bada, Bosthartean sortzea ere beharrezkoa litzateke, bost euskal merkatal ganberak batuko litzukeen erakundea. Horretarako borondatea eta sendotasun politikoa eduki behar dira, Espainiako eta Frantziako interes politikoak hori eragozten saiatuko baitira. Lehenengo pausoa eman da jada. Zergatik ez beste batzuk ematen segi?

Juan Mari Arregi

BAHEA

Nuria Sebastian Pompeu Fabra Unibertsitateko katedradunak *El Diario Vascon* esanak:

Galdera: “Egia al da haurrek belakiak bezala xurgatzen dutela?”

Erantzuna: Badu horrek egiatik zerbait. Bizitzako lehen hilabeteetan ikasketaren zati garrantzitsua egiten da. Garai horretan haurrak beren hizkuntzaren soinueta espezializatzen dira: bere ingurukoak hobeto atzemango dituzte eta gainerakoak identifikatzeari utziko diote.

Ahantzurantzko ikasketa deitzen zaio horri. Hasieratik hainbat hizkuntza badituzu eta inguru horretan mantentzen badira, gero ez dira ikasi behar. Heldua zarenean jartzen badizkizute, umetan ikasitakoaren zati bat desikasi behar duzu beste hizkuntzak zureganatzeko. Baina tarte bat egiten badiozu hizkuntza bakoitzari sortzen ari direnean, hazia jarri duzu. Hori bai, ez da ereiten beste hizkuntzetan telebista ikusiz eta haurrei bideoak jarritz”.

Liderra

ARNALDO OTEGIK *El País*-i emandako elkarrizketa ez da edozein indar politikoren buruzagik ematen duena. Arrazoi askorengatik ez da elkarrizketa bat gehiago: espetxean dago, ez da bere elkarrizketarik irakurri oso aspaldi eta datoren garaian dator, irailean zehar ezker abertzaleak bake prozesu berri hau mugiarazteko erakutsitako ekimen politiko indartsuaren ondoren.

Otegi elkarrizketa eskaera asko izan ditu, zalantzarik gabe, baina *El País*-i eman dio oraingoan, eta ez egunkari honetako edozein kazetariri, John Carlini baizik. Kazetari britainiar honen lan ezagunena *Playing the Enemy* da eta bertan sakon aztertzen du Hegoafrikako bake prozesua nola elikatu zen. Carlinek ondo ezagutzen ditu hango bazterrak. Eta ez dugu ahaztu behar, halaber, Brian Currin hegoafrikarra dela nazioarteko bitartekaritzaren dinamizatzaile publikoa.

Elkarrizketak PSOEren oniritzia ere baduela pentsa liteke eta Jose Luis Rodríguez Zapateroren erantzun azkar eta baikorrak ere itxura hori indartzen du. Gidoirik badagoen ala ez, hori bestelako kontua da, baina badirudi Zapaterori interesatzen zaiola Espainiako iritzi publikoak Otegi pentsatzen duena jaso dezan. Elkarrizketa honen bidez, halaber, nazioarteko komunitateak ezker abertzalearen iritzia bere liderraren eskutik jasotzen du.

Bai, liderra. Eta hau da seguruenik elkarrizketaren atalik garrantzitsuenetakoa, Otegiaren lidergoa argi adieraztearena. Preso batek oso gutxitan hitz egiten du maila horretan eta halako tinkotasunarekin, baldin eta ez bada Presoen Kolektiboaren izenean edo, aitzitik, kolektibo horretatik kanpo kokatua. Eta Otegi hasieratik argi uzten du ezker abertzaleko buruzagi moduan



DANI BLANCO

mintzo dela. Besteak beste, zorrotz jardun du ezker abertzalearen estrategia berriaren izaeraz: “Bide bake-tsu eta demokratikoak soilik, independentziantz ez da beste biderik”. Balizko atentatu bat, zerga iraultzailea, kale borroka... eta gisa-koak ere ezker abertzalearen estrategia politikotik kanpo uzten ditu. Eta ETAK egin beharko lukeena ere oso zehatz azpimarratu du: “Anbiguetaterik onartzen ez duen ezker abertzaleko oinarrien agindua dago eta bete egin behar da”.

Berak esandako gehienak sarri ateratu dituzte mahai gainera ezker abertzaleko hainbat buruzagik, baina berak orain eta molde honetan esateak beste balio bat du iritzi publikoari begira, bereziki Espainiako eta nazioarteko iritzi publikoei begira.

Azaroaren 11n epaituko dute Otegi, —Joseba Permach eta Joseba Alvarezekin batera— oraingoan 2004an Anoetako Proposamena egin eta, besteak beste, “terrorismoa goresteagatik”. Iaz sasoi honetan ETA berrantolatzeagatik —ETA eta Batasuna bat baldin badira, Espainiako Justiziak dioen legez— atxilotu zuten gisara. Tesi horretan murgilduta, Otegi ETA berrantolatzen du honek borroka armatua utz dezan. Hara delitua. “Baina jakina,

hauteskundeei begirako estrategiak dira” (amaitzen du tesiak).

Herritarren gero eta gehiengo handiago bati, ordea, gero eta sinesgaitzagoa egiten zaio ipuina. Egia da ezker abertzaleak gizartearen aurrean sinesgarritasun arazo handiak dituela, baina ez da inongo zalantzarik ezker abertzale hori astetik atera ari dela sinesgarritasuna irabazten euskal gizartean. Otegiaren elkarrizketa honek sinesgarritasun hori are eta gehiago sendotzen du, Espainian ere gero eta zabalduago dagoen mezua —“Batasuna serio ari da”— finkatzen laguntzen du eta ezker abertzalearen baitan Otegi lider gisara agertzen da.

Mandela bezala espetxeratua dagoen liderra. Eta atzerrira begira —eta bien arteko inongo konparazio pertsonalik egin gura barik— irudi horren itzala zabaltzen da. Barne Ministerioaren politika errepresiboaren mende egon ezean, nekez uler baitaiteke nola egon litekeen espetxean borroka armatua alboratzeko ezker abertzalea egiten ari den bide gaitz horren protagonista nagusietakoa.

Elkarrizketa honek Otegi sendotu egin du eta, aurrerantzean gehiago, espetxeak ere sendotu egiten du.

PELLO ZUBIRIA

Zainzuriak nola agortu dituen Peruko iturriak

Duela 50 urte zabaldu omen zuen Perun Guillermo Ganoza enpresaburuak, baina zainzuriaren eromenak 15 urte besterik ez du han: Munduko Bankuak maileguak egin zizkien esportaziorako soroak antolatu nahi zituztenei. Hamarkada eta erdi beranduago, inguruetako iturriak agortu dituzte, lurpeko urak urritu... Zenbat iraungo dute?

NAFARROAKO ZAINZURIA AHITZEAR egon liteke, atzeritiko inportazioak ez moztekotan. Diagnostiko dramatiko hori joan den otsailaren 12an plazaratu zuen UAGNko Felix Bariainek. Nekazarien buruzagi honek Peru eta Txinatik iritsitako zainzuriak egiten zituen errudun, eta kritikatu zituen Nafarroako kontserbagileak bertan urri eta merke erosten dituzten esparragoak erabiltzen dituztelako fama kaxkarragoa duten atzerrikoak ezkatatzeko.

Maiatzean EHNEko Ignacio Gilek berretsi zituen iritziok, argituz aurten gogorra izango zela sasoia zainzuritan ari diren laborarientzako, gogorraz gain laburra, udaberrian beroa berandu heldu zelako. Gainera krisia: “Nafarroako zainzuria *delicatessen* gai bat da, garestia. Horrelakoez nozitzen dute gehien krisia. Sobekakin daude biltegieta”.

Aurten Nafarroako soroetan 2,5 milioi kilo ekoiztea espero bazuten, Txina eta Perutik 60 milioi ziren sartzekoak, EHNEko ordezkariaren hitzetan. Horietatik gehienak zuriak, kontserbatarakoak, baina gero eta gehiago esparrago berdea ere bai. Harriturik zioen Gilek: “Ez dakigu nola lortzen duten, oso gai hondakorra baita”.

Nafarrei arrazoi eman zien joan den abuztuan munduko zainzuri esportatzailerik handiena den Cam-

posol enpresako buru Juan Jose Gal’Linok, *Cinco Días* egunkari ekonomikoan deklaratu zuenean: “Peruko zainzuriak nagusitasuna kendu dio Nafarroakoari”. Camposolek iaz 100 milioi euroko balioa esportatu zuen, herena Espainiara.

Gal’Linok argitu ditu peruarren sekretuak. Hasteko, eguraldia: han 12 hilabeteetan egunero bildu dezakete zainzuria, soroek hemengoan hiru edo lau halako ematen omen dute. Bestetik, eskulanari han askoz jorral urriagoa pagatzen zaio. Teknologian hemengoan pare jarri dira. Oronen buru, harro diote zainzuri *peruanoak* ez duela hemengoaren inbidiarik.

Cinco Díaseko kazetariari Gal’Linok erantzunik dakigu Peruko industria handia ere kolpatu duela krisiak, salmentak heren batean jaitsi zaizkiela, prezioak beste hainbeste. Kontatu digu ere 1997an enpresaburu venezuelatar batek sortutako Camposol 2007an Dyer familiak erosi zuela, arrantzatik aberastu den Copeinca talderako. Hauen eskutik sartu ei da burtsan, baina ez edonongoan: Osloko burtsan. Agroindustriak interes handia piztu du munduko inbertsiogileen artean.

Alta, beren esportazioen kopuruak eta urteroko irabaziak –Camposolek 2008an 6,8 milioi euroko etekina erdietsi zuen– harro iragar-

Irudi handia Enrique Daniel Salazar batek sinatuta dago. Ica haraneko zainzuri soroak erakusten ditu ondoko mendi idortuetatik ateratako erretratuan. Cristobal Colon iritsi aurretik parajeotako biztanleak nekazaritza aberatsaren jabe izan omen ziren, oraindik mendi magaletan kontserbatzen dira haiek eraikitako kanalizazioak. Orain Munduko Bankuak herrialde txiroetarako prestatu formula ari dira aplikatzen Peruko basamortuan, prezio merketan esportatzeko elikagaiak sistema industrialean ekoiztea. Irudi txikian, Morrison World News-ek eskainitakoan, emakumeak ageri dira Ica bailarako zainzuri berde freskoak sortatan pisatu eta lotzen, hegazkinez herrialde aberatsetara esportatzeko. Horrelako 10.000 lanpostu sortu omen ditu Ica eskualdean agroindustriak. Urik eza orain artean nekazari txikiek nozitu dute baina laster arazo horri egin beharko diote aurre handienek ere.

tzen dituzten enpresaburu perutarrek aipatu ere ez dute egiten hango soroetan labore industrializatuak eragin duen liskar handi bat: esparragogintzak ura urritu du Peruko paraje idortuetan eta milaka lanpostu berri sortu dituen modu berean beste milaka familia utzi ditu bizi-modua atera ezinik.

Egarri baten mozkorrez

Felicity Lawrence kazetariak honako lerroburua paratu du *The Guardian* egunkarian: “Britainiarren esparragozetatasunak nola zurrupatzen dituen agortzeraino Peruko iturriak”. Gurean potoko zainzuriak bezala estimatzen dira Britainia Handian zainzuri berdeak.

Kronika idazteko Lawrence Progreso erakundeak zabalduetako informazioan oinarritu da. Progreso solidaritate erakunde ingeles katolikoa da, duela 70 urte inguru sortua, eta haren webgunean irakur daiteke Askapen Teologiako kristau ezagunek 1960-1970 urteetatik landutako ideiak egiten dituela bere

Progreso elkarteak Erresuma Batuan piztu du alarma europarrak zainzuri merkeak jan ditzaten Peruko soroetan gertatzen denaz. Batik bat Ica bailaran, zainzuriak modu industrialean ekoizteagatik urte gutxitan arras urritu dela lurpeko ura.



Munduko leku lehorrenetarikoa da Ica bailara. Urte osoko beroa aprobeztatzekotan, zainzuriak eten gabe ureztatu behar dira, lurpeko iturrietatik aterata. Baina 2002tik hona iturriok ez dira ur berriz berdintzen. Ura gero eta sakonagotik atera beharra dago. Ez omen da munduan beste lekuri ura hain azkar desagertzen ari denik.

Esportaziorako nekazaritza industrialia Peruko eremuotan 1990eko hamarkadan hasitako fenomeno da, Munduko Bankuaren kredituz sustatuta hasia. Geroztik desertuko 100 hektarea zainzuri sail bihurtu da. Industriak dio 10.000 lanpostu berri sortu dituela. Baina bidean 18.000 herritar utzi ditu urik gabe.

Juan Alvarez nekazariaren kasua bildu du Progressioren dossierrak. Lau belaunaldiz nekazaritzan ari diren alvareztarrek 10 langile dauzkatel finkorik eta 40 gehiago behar izaten dituzte uzta garaietan. Bizibidea arriskuan dauka etxaldeak. Lehen 55 metroko sakoneratik ateratzen zuten ura, segundoko 60 litro; orain 108 metro arte zultatu behar da segundoko 22 litro ateratzeko.

“Esportatzaileak –dio Alvarezek– gobernu berriarekin eta dirulaguntzekin iritsi ziren. Lana ekarri dute, egia da, baina ura agortzen ari dira eta ahitzen denean alde egingo dute. Zein da gure etorkizuna? Guk ez dugu inoiz alde egingo”.

Etxalde txikiagoak are larriago bizi dira. Askok saldu egin dizkiete

beren ur eskubideak industrialei, eta saldu ez dizkietenek eskasiari egin behar diote aurre. Ura gero eta urriago, gero eta sakonago... eta lurzorua lehen baino azkarrago sekaten da.

Alicia Flores eta bere sendia Callejón de los Espinosen bizi dira, Ica bailaran. Hemen etxetara astean hirutan iristen da ura, aldiko ordu betez. Lehen astean lautan zeukaten eta bina orduz, baina esportatzaileek lurpeko ura irentsi ahala presioa beheiti joan zen. Badira lau urte hori gertatu zela. Gero, 2007an, lurrikarak are okerrago zituen gauzak, hodi eta biltegiak hondatzean. Gaur, eguneko eta pertsonako 10 litro besterik ez daukate, Munduko Osasun Erakundeak minimotzat jotzen duenaren laurdena baino gutxiago.

Uraren urritzeak esportaziorako ari diren soro handiak ere kolpatzen ditu. Gero eta karuago ordaindu behar dute ureztatzea. Sakonago zultatu behar dute jario bila. Auzokoen iturbegiak erosten dituzte. Hodi bidez ekarri beharra daukate urrutietatik. Agintariak diruz busti behar dituzte legez kontrako erabilerari ezikusia egiteko.

Perun esportaziorako antolatu diren soroak omen dira ura nola ez den erabili behar ikasteko eskola. Eta klimaren aldaketarekin are okerrago izanen da, Andeetako glaziarak urtuta basamortuotan urpeko uraren maila are apalago izango da.

Progressiok aipatu duen Alicia Florensen senarra, esportatzaileen langile ari da. Ondo samar kobratu izan du... krisia iritsi den arte. “Ura agortzen bada eta haiek joan, ez dugu izango ez lanik, ez urik. Zer egingo dute gure haurrek?”. ■





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Germinal 33

Greba egunak herrokatzen ditugu erretreten erreforma likitsaren salatzeko. Manifestaldi kopuruak bukatzean, Baionako udal-txe plazan mintzo direnek hurrengo hitzordua finkatzen digute, bazterretan zenbait marmazika dabiltzala: zergatik balio du noizbehinkako mugimendu batean soldata galtzeak, astebete-ko greba mugagabea eramatea aski litekeelarik? Trenak, kamioiak, metroak geldi daitezela, eskolak, postak, lantegi pribatuak, paralisia dezagun hiritar xeheenaren errespeturik ez daukan gobernuarekiko herrialde hau.

Herresteriak baliatzen dituen tegi fiskalak suntsituko dituzte. Ez dute aberatsenen probetxuz dagoen tapakia ukituko. Fillonek gai hori ez dela tabu erran berri duen arren, Sarkozyk errepikatzen du ez datekeela zergak (dirudun okituentzat noski) emendatuko dituen lehendakaria. Fiskalitatea beraz funtsezko injustizien bermarri altxatzen zaigu, obretan bezain diskurtsoetan. Erretreten gaia berdin. Haurretaz axolatuz lanean ari izan direnen emazteentzat bereziki, langile-bizitza osoan gainera gizonetakoek baino %20 apalagoko sosa sakelaritzen dutela oroitzu. Emaztearen independentzia ekonomikoa da zalantzan jartzen. Galda dezakegu, ez denez hori erreforma honen xede ez aitortuetarik bat gizarte patriarkala zuriaren berrantolatzeke. Emazteak alaina emigratuak bezala—udako gobernarien rom delakoen kontrako histeria lekuko—sobera daude lantokietan. Batez ere behe-mailako zereginetan. Hilabetesari urrienen.

Aipatzen digute erretreten sistema *salbatzekoa* dela, baina aldaketaz aldaketa azkenean gure belaunaldiari eta ondokoei adin onargarri batean erretiratzeko ahalmena bera zaigu ukatzen. Uste dut erreformak helburu bikoitza duela: bat, kapi-



GAIZKA IROZ

talizaziozko erretreta eskaintzen duten enpresa pribatuei bidearen irekitzea—buruzagi gehienak lehendakarien adiskideak dira—eta bi, orain arte banaketaz eta dretxo ezberdinez azpaturiko lan munduaren erraustea. Badu hogeitaz lanaren kalterako gerra isila deklaratu dutela neoliberalak.

Ontsa pentsatzen hasi eta garbi dago erretreten salbatzeko dioten eran, kalitate eta soldata egokiekiko lana hobestea litekeela aterabidea. Kotizataile haboro bali-teke seguritate sozialarentzat, erretreta kaixentzat edo osasunarentzat. Manatzen duen elitea ez da horretan: estatua atzera doa alor publiko anitzetan eta nagusigoak ez du elkartasun egituretan sos pilik ezarri nahi. Laurence Parisot MEDEFeko zuzendariak ez du besterik aldarrikatzen. Sakrifiziora akuilatzen gaituzte.

CAC 40-eko aho zabalen kezkei hurbilago gaude, etxe zolako eskalearen sumindura gosaioetarik baino. Lortu dute gure

buru-muinen setiatzea. Horregatik da hain zaila borrokatzea eta greba egun bateko sosaren xahutzea herritarren eskubideen alde baldin bada ere. Sindikatuek halatan larunbatetako ekin-tzak iragarri dituzte, *baliabide* askirik ez duten beharginak biltzeko. Greba, bakarrik baliabide ekonomiko soil arazoa al da? Kotxe berria edo HD ready telebista pantaila erosteko unean bezala? Grebara jotzeko baliabideak metatzea igurikatzen baldin badugu aiduru denbora luze dateke askorentzat. Gutaz plazer dutena egingo dute bitartean eta hondarrean

europarrok txinatar arruntenen soldatekiko populu pauperizatuak garateke.


Emile Zolaren *Germinal* eleberri izugarriko meatzariek ez zuten grebara jaisteko baliabiderik Etienne Lantieren gidaritzapean lana utzi zutenean. Abendu garratz hartan ez zuten irabazi, baina beraien baitan zer bait aldatu zen. ■



Lortu dute gure buru-muinen setiatzea.
Horregatik da hain zaila borrokatzea eta greba egun bateko sosaren xahutzea herritarren eskubideen alde baldin bada ere.
Sindikatuek halatan larunbatetako ekin-tzak iragarri dituzte, *baliabide* askirik ez duten beharginak biltzeko



ASTE HONETAKO zozketa



Arbelaitz Jatetxea

Afaria
bi lagunentzat

P^o Mikeletegi, 53
Donostia GIPUZKOA

www.arbelaitz.com

1



Esait

3 kamiseta
opari

Oiartzun GIPUZKOA

www.esait.org

2



Hor hago Kevin? Kevin Heredia

5 liburu opari

Meetok

Tel. 943 298 004

3



Esne beltza noa Kaotiko Reacciona!!! Ze esatek

3 CD sorta opari

Baga Biga
www.baga-biga.com

4



Munduko ipuinak

2 lagunentzat opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2247. Argia)

ATXASPI

- Elena Iturbe Bengoa (Arrasate)

INGURU

- Iñaki Sagasta Arana (Arrasate)
- Miren Garcia Dalmau (Hernani)
- Miren Josune Ugarte Epelde (Bilbo)

TXURI-URDIN

- Eihar Egaña Garcia (Donostia)
- Elixabete Perez Gaztelu (Oiartzun)

OTAÑO

- Gregorio Zapirain Baztarrika (Oiartzun)
- Jose Manuel Larrañaga Garmendia (Zumaia)
- Jone Santamaria Azpiri (Donostia)
- Juan Jose Belamendia Senperena (Azkoitia)
- Xalbador Unzueta Mitxelena (Zarautz)

ARTEZ EUSKARA ZERBITZUA

- Gasteizko Justizia Jauregia (Gasteiz)
- Mari Jose Irizar Aranburu (Donostia)
- Xabier Arrizabalaga Larrinaga (Ondarroa)
- Anoetako Udal Liburutegia (Anoeta)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea



Bazen behin...

Mahai-jolasa

4 ZAILTASUN MAILA

- Hasiberriak
- Jarraitzaileak
- Adituak
- Profesionalak



Galdera-erantzunak
bost ataletan banatuta:

- Zirkulazio-aparatua
- Nerbio-sistema
- Digestio-aparatua
- Inmunitate-sistema
- Gaixotasunak

bizitza

2.200 galdera giza gorputzari buruz



39€

Harpidedunentzat

35€

Eskaerak: 943 36 86 61
info@luditoys.com

Ludi**toys**

www.luditoys.com

**"Egin jolas giza gorputzari buruz
beti jakin nahi izan duzuna ikasiz"**